**PROGRAMA**

4511 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA. EGITURA ETA LAGUNTZA

**ARDURADUNA**

10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

ZERBITZU ZUZENDARITZA

**HELBURUA**

**1. SAILAREN GOI-ZUZENDARITZA BETETZEA**

**2. SAILEKO ORGANO KUDEATZAILEEI LAGUNTZA EMATEA**

**3. EUSKARA PLANA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA (HIZKUNTZA NORMALKUNTZA)**

**4. SAILEKO POLITIKA GUZTIETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO PROZESUA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN SAILEKO BERDINTASUNERAKO PLANAREN BITARTEZ**

**5. SAILEKO ESTATISTIKA LANTZEA**

**BETETZE MAILA**

**1. SAILAREN GOI-ZUZENDARITZA BETETZEA**

Sailaren goi-zuzendaritzak, Zuzendaritza Kontseiluak ordezkatua eta sailburuaren gidaritzapean, Sailaren jardueren Zuzendaritza- eta koordinazio-lanak egin ditu. Zeregin hori honetan islatu da: Sailak 2019ko ekitaldian zehar eman dituen maila desberdineko arau-xedapenetan eta jarraibideetan.

**2. SAILEKO ORGANO KUDEATZAILEEI LAGUNTZA EMATEA**

2.1. Arlo Ekonomikoa

Kudeaketa ekonomikoa bi jarduera-ardatz nagusiren inguruan gauzatzen da, behin eta berriz:

- Hainbat motatako txosten eta azterketak egitea, urteroko aurrekontuak lantzeari begira, goi-zuzendaritzari beharrezko tresnak eskuratzeko, gai honen inguruko erabakiak har ditzaten.

- Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean programatu diren helburuekin bat etorriko den aurrekontu-gauzatzea helburu duten jarduerak garatu eta bultzatzea, eta informazioa eta kudeaketa-tresnak ematea hala goi-zuzendaritzari nola aurrekontua kudeatzen dutenei.

***PROGRAMA***

*4511 ESTRUCTURA Y APOYO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA*

***RESPONSABLE***

*10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA*

*DIRECCIÓN DE SERVICIOS*

***OBJETIVO***

***1. EJERCER LA ALTA DIRECCIÓN DEL DEPARTAMENTO***

***2. PRESTAR APOYO A LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO***

***3. IMPULSAR Y COORDINAR EL PLAN DE EUSKERA (NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA)***

***4. IMPULSAR Y COORDINAR EL PROCESO DE INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN TODAS LAS POLÍTICAS DEL DEPARTAMENTO A TRAVÉS DEL PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEPARTAMENTAL***

***5. ELABORAR LA ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL***

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. EJERCER LA ALTA DIRECCIÓN DEL DEPARTAMENTO***

*La Alta Dirección del Departamento representada en su Consejo de Dirección, presidido por la persona titular del mismo, ha ejercido las labores de Dirección y coordinación de las diferentes actividades del Departamento. Esta labor se ha visto reflejada en el conjunto de disposiciones normativas y directrices de rango diverso que ha promulgado este Departamento a lo largo del ejercicio 2019.*

***2. PRESTAR APOYO A LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO***

*2.1. Área Económica*

*De forma recurrente la gestión económica se realiza en torno a 2 grandes ejes de actuación:*

- *Elaboración de informes y análisis de diverso índole que se realizan cara a la confección de los presupuestos anuales, con el fin de facilitar a la alta dirección las herramientas necesarias en el proceso de toma de decisiones en esta materia.*

- *Desarrollo e impulso de actuaciones que tienen por finalidad una ejecución presupuestaria acorde con los objetivos programados en cada ejercicio presupuestario, suministrando información y herramientas de gestión tanto a la Alta Dirección como a los diferentes gestores del presupuesto.*

2.2. Arlo Juridikoa

Aholkularitza Juridikoaren zeregina da Sailaren gainerako zuzendaritza eta atalei lege-aholkularitza ematea. 2019ko ekitaldian zehar, besteak beste honako eginkizunak burutu ditu organo horrek:

- 156 txosten egin dira, nahitaezkoak eta eskatutakoak.
- Administrazio-erreklamazio eta errekurtsoen 64 ebazpen-proposamen egin dira.
- 41 administrazio-kontratu izapidetu dira.
- 65 espediente judizial tramitatu dira eta prozedurako kostuak ordaintzeko edota kobratzeko 5 espediente izapidetu behar izan dira.
- 15 Kide-anitzeko organoen izendapenak izapidetu dira.

Jardunbide horretan, eginkizun horien jatorrian dauden espedienteak bultzatu dituzten atalekin izandako zuzeneko harremanak lagundu egin du irizpide eta parametro homogeneoak finkatzen xedapen orokorrak aplikatzeko orduan eta Sailaren barneko eta kanpoko ekinbidean.

2.3. Arlo Informatikoa

Sailaren Zuzendaritzetarako hainbat informazio-sistema garatu dira, haien beharrei erantzuteko; hainbat zerbitzu e-administraziora egokitzeko lanean gabiltza; EJIEri egindako enkarguen hileroko kontrola eta jarraipena egiten dugu, behar bezala egikaritzen ari dela egiaztatzeko eta behar den kasuetan doikuntzak egiteko; Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko web-ataria kudeatu da ere bai, eta datu pertsonalen babesa dela eta, hainbat aldaketa ezberdin burutu ditugu.

2.4. Langileen Atala

Langileriaren gaineko araudiari jarraiki, Sailari atxikitako langileriaren lan arloko eta ordainsarien inguruko baldintzak kudeatu dira.

**3. EUSKARA PLANA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA (HIZKUNTZA NORMALKUNTZA)**

VI. Plangintzaldiko (2018-2022) Erabilera-planaren bigarren urtea izan da.

Zuzendaritza bakoitzak kudeaketa-plan bat lantzen du urtero, eta 2019. urtean horiei dagozkien ekintzak egin ditugu. Bereziki aipatu behar da Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagia lortzeko lanean aritu garela aurten Kultura Sailburuordetzan eta Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritzan. Zerbitzu guztiekin egin dugu lan hori lortu nahian, eta goi mailako ziurtagiria lortu dugu.

Euskararen erabilera hobetzeko, gure lan-hizkuntza izan dadin, mota guztietako prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eskaini zaie lankideei.

*2.2. Área Jurídica*

*La Asesoría Jurídica es la encargada de prestar asesoramiento legal a las demás direcciones y unidades del Departamento. Durante el ejercicio 2019, como labores típicas desarrolladas por dicha dependencia, caben señalar las siguientes:*

- *Se han realizado 156 informes entre preceptivos y facultativos.*
- *Se han realizado 64 propuestas de resolución de recursos y reclamaciones administrativas.*
- *Se han tramitado 41 contratos administrativos.*
- *Se han gestionado 65 expedientes judiciales, de entre los cuales se ha tenido que realizar la gestión de los pagos o cobros de las costas procesales de 5 expedientes.*
- *Se ha realizado la tramitación de 15 nombramientos de órganos colegiados.*

*En el desarrollo de tal actividad, la relación directa con las dependencias promotoras de los expedientes de los que traen causa tales labores, han contribuido a fijar criterios y parámetros homogéneos en la aplicación de las disposiciones de carácter general y en la actuación interna y externa del Departamento.*

*2.3. Área Informática*

*Se han desarrollado diversos sistemas de información para las distintas Direcciones del Departamento con el fin de dar respuesta a sus necesidades; se está continuando el trabajo para las adaptaciones de diversos servicios a la e-administración; se realiza un seguimiento mensual de los encargos a EJIE, para comprobar su ejecución y realizar ajustes en los casos necesarios; también se ha gestionado el portal del Departamento de Cultura y Política Lingüística, y se han llevado a cabo diversas acciones derivadas de la protección de datos de carácter personal.*

*2.4. Área de Personal*

*Se han gestionado, de acuerdo a la normativa vigente en materia de personal, las condiciones laborales y retributivas del personal adscrito al Departamento.*

***3. IMPULSAR Y COORDINAR EL PLAN DE EUSKERA (NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA)***

*Ha sido el segundo año del VI. Plan de Uso del Euskera (2018-2022).*

*Cada Dirección trabaja anualmente en un plan de gestión, y en 2019 hemos realizado las actividades previstas. Es de reseñar que en la Viceconsejería de Cultura y la Dirección de Actividad Física y Deporte hemos trabajado para conseguir el Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística Bikain, y hemos obtenido el nivel superior. Todos los servicios han trabajado para ello.*

*A fin de mejorar el uso del euskera, con el objetivo de que sea nuestra lengua de trabajo, se ha ofrecido todo tipo de ayuda, formación y asesoría.*

**4. SAILEKO POLITIKA GUZTIETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO PROZESUA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN SAILEKO BERDINTASUNERAKO PLANAREN BITARTEZ**

Sailaren urteko Berdintasunerako Plana egin da, sailean eratutako hiru berdintasun-taldeekin koordinatuta: Kultura, Hizkuntza Politika eta Jarduera Fisikoa eta Kirola.

Planaren ekintzen jarraipena, eta haiek diseinatzeko eta gauzatzeko aholkularitza eman da. Era berean, horien ebaluazioa koordinatu da, eta horien berri eman da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko aplikazioan.

***4. IMPULSAR Y COORDINAR EL PROCESO DE INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN TODAS LAS POLÍTICAS DEL DEPARTAMENTO A TRAVÉS DEL PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEPARTAMENTAL***

*Se ha elaborado el Plan de Igualdad anual del Departamento en coordinación con los tres grupos departamentales de igualdad constituidos en el seno del Departamento: Cultura, Política Lingüística y Actividad Física y Deporte.*

*Se ha realizado seguimiento de las acciones del Plan y prestado asesoramiento para su diseño y ejecución. Así mismo se ha coordinado la evaluación de las mismas y se ha dado reporte de estas en el aplicativo de seguimiento y evaluación del VII Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAE.*

**5. SAILEKO ESTATISTIKA LANTZEA**

Helburu hori betetzeko estatistika-lanak honako eginkizun hauetan gauzatu dira:

Aurreikusitako txosten teknikoak egin dira.

Sailaren estatistika programaren barruko eragiketa estatistiko ofizialak garatu dira:

- 020702: Mapa Soziolinguistikoa.
- 020709: Euskararen aurrekontuak.
- 020711: Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak.
- 020713: Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua.
- 070191: Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan.
- 070194: Fitxategien estatistika.
- 070196: Irakurketa-sare publikoko liburutegien estatistika.
- 070197: Museoen eta bildumen estatistika.
- 070198: Arteen eta kultura-industrien estatistika.
- 070202: EAEko sormen industrien estatistika.
- 070201: Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta.

***5. ELABORAR LA ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL***

*Para el cumplimento de este objetivo, los trabajos estadísticos se han concretado en las siguientes realizaciones:*

*Se han elaborado los informes técnicos previstos.*

*Se han desarrollado las operaciones estadísticas oficiales incluidas en el programa estadístico departamental:*

- *020702: Mapa Sociolingüístico.*
- *020709: Presupuestos del euskera.*
- *020711: Estadística de la enseñanza de euskera a personas adultas: alumnado y euskaltegis.*
- *020713: Censo de infraestructuras sociales del euskera, públicos y privados.*
- *070191: Financiación y gasto público en cultura.*
- *070194: Estadística de archivos.*
- *070196: Estadística de las bibliotecas de la red de lectura pública.*
- *070197: Estadística de los museos y colecciones.*
- *070198: Estadística de las artes e industrias culturales.*
- *070202: Estadística de las industrias creativas de la CAE.*
- *070201: Encuesta de hábitos, prácticas y consumo de cultura en el País Vasco.*

**PROGRAMA**

4512 KIROLAK

**ARDURADUNA**

10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA

***HELBURUA***

***1. KIROL EREDUAREN INGURUKO HAUSNARKETA SUSTATZEA***

***2. EUSKADI GIZARTE AKTIBOAGOA IZATEKO LAN EGITEA***

***3. KIROL KLUBEI ETA FEDERAZIOEI BURUZKO HAUSNARKETA SUSTATZEA***

***4. GOI MAILAKO EUSKAL KIROLA INDARTZEA***

***5. ZERO TOLERANTZIA DOPINAREKIN***

***6. ARIKETA FISIKO ETA KIROL SEKTOREAREN PROFESIONALIZAZIOA BULTZATZEA***

***7. JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOAN EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BENETAKO BERDINTASUNA LORTZEA***

***8. KIROL EGOKITUARI AUKERA BERRIAK EMATEA***

***9. GURE KIROL AUTOKTONOAK BABESTEA***

***10. EUSKARARI BIDEAK IREKITZEA KIROL ARLOAN, GAZTEEN ARTEAN BEREZIKI***

***11. EUSKAL SELEKZIOEN ALDEKO ETA KANPO – PROIEKZIOA DUTEN POLITIKAK SUSTATZEA***

**BETETZE MAILA**

**1. KIROL EREDUAREN INGURUKO HAUSNARKETA SUSTATZEA**

Euskal Herriko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege Aurreproiektuaren izapidetza hasi dugu.

**2. EUSKADI GIZARTE AKTIBOAGOA IZATEKO LAN EGITEA**

Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak 2019 (38. edizioa) antolatu dira, eta 2.474 kirolarik hartu dute parte: 1.462 mutikok eta 1.012 neskatok. Bizkaian izan dira jokoak.

Eskolako Kirolaren Euskal Batzordea dinamizatu da (bitan bildu da).

Horrekin batera, Donostian izandako Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketa 2019 antolatu da Deustuko Unibertsitatearekin bat.

***PROGRAMA***

*4512 DEPORTES*

***RESPONSABLE***

*10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA*

*DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE*

***OBJETIVO***

***1. IMPULSAR UNA REFLEXIÓN SOBRE EL MODELO DEPORTIVO***

***2. TRABAJAR PARA QUE EUSKADI SEA UNA SOCIEDAD MÁS ACTIVA***

***3. FAVORECER UNA REFLEXIÓN EN TORNO A LOS CLUBES DEPORTIVOS Y LAS FEDERACIONES***

***4. REFORZAR EL DEPORTE VASCO DE ALTO NIVEL***

***5. TOLERANCIA CERO CONTRA EL DOPAJE***

***6. REFORZAR LA PROFESIONALIZACIÓN DEL SECTOR DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EL DEPORTE***

***7. LOGRAR LA IGUALDAD REAL Y EFECTIVA DE MUJERES Y HOMBRES EN EL ÁMBITO DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EL DEPORTE***

***8. DAR NUEVAS OPORTUNIDADES AL DEPORTE ADAPTADO***

***9. APOYAR NUESTROS DEPORTES AUTÓCTONOS***

***10. ABRIR VÍAS AL EUSKERA EN EL DEPORTE, SOBRE TODO ENTRE LAS PERSONAS JÓVENES***

***11. IMPULSAR UNA POLÍTICA EN FAVOR DE LAS SELECCIONES VASCAS Y DE PROYECCIÓN EXTERIOR***

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. IMPULSAR UNA REFLEXIÓN SOBRE EL MODELO DEPORTIVO***

*Se ha iniciado la tramitación del Anteproyecto de Ley de Actividad Física y del Deporte del País Vasco.*

***2. TRABAJAR PARA QUE EUSKADI SEA UNA SOCIEDAD MÁS ACTIVA***

*Se ha organizado la 38 edición de los Juegos Deportivos Escolares de Euskadi 2019 en Bizkaia, en los que han participado 2.474 deportistas: 1.462 niños y 1.012 niñas.*

*Se ha dinamizado la Comisión Vasca de Deporte Escolar que se ha reunido en dos ocasiones.*

*Asimismo, se han organizado, junto con la Universidad de Deusto los campeonatos de Euskadi de Deporte Universitario 2019 celebrados en Donostia.*

MUGIMENT egitasmoa betetzen jarraitu dugu. Egitasmoak 84 sustatzaile biltzen ditu. 29 sare lokal eta 30 orientazio zerbitzutan parte hartu dugu.

Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuen sorrera eta garapenerako dirulaguntzen deialdi berria eskaini dugu. 32 eskaera jaso ditugu, eta, balorazio batzordeak aztertu ondoren, 24 toki-erakunderi eman diegu dirulaguntza.

*Se ha continuado con la ejecución del Pro-yecto MUGIMENT. El proyecto reúne a 84 promotores, se ha participado en 29 redes locales y 30 servicios de orientación.*

*Se ha ofrecido una nueva convocatoria de subvenciones para la creación y desarrollo de servicios de orientación de actividad física. Se han presentado 32 solicitudes cuyos proyectos fueron valorados por la comisión de valoración y se ha subvencionado a 24 entidades locales.*

**3. KIROL KLUBEI ETA FEDERAZIOEI BURUZKO HAUSNARKETA SUSTATZEA**

Euskadiko 47 federaziok laguntzak jaso dituzte urteko euren egitarauetarako. Adierazi behar da 47 eskaera aurkeztu direla, Kalifikazio Batzordeak aztertu dituela kirol proiektuak eta denei eman zaiela laguntza ekonomikoa.

Dirulaguntza eman zaio Euskal Kirol Federazioen Batasunari, euskal federazioak berrantolatzeko eta optimizatzeko, eta euskal selekzioak sustatzeko eta kanpoan proiektatzeko.

***3. FAVORECER UNA REFLEXIÓN EN TORNO A LOS CLUBES DEPORTIVOS Y LAS FEDERACIONES***

*47 Federaciones vascas han recibido ayudas para sus programas anuales. Ha de señalarse que se han presentado 47 solicitudes, cuyos proyectos deportivos han sido valorados por la Junta Calificadora y se han concedido ayudas económicas a todas ellas.*

*Se ha subvencionado a la Unión de Federaciones Deportivas Vascas, para la reorganización y optimización de las federaciones vascas y potenciación de las selecciones vascas y su proyección exterior.*

**4. GOI MAILAKO EUSKAL KIROLA INDARTZEA**

Eskaerak aztertu dira, 67 kirolari, 7 teknikari eta goi mailako epaile bi (emakumea eta gizona) kalifikatu eta aitortu dira, eta bitan argitaratu dira zerrendak. Goi-mailako kirolari emandako laguntzak Basque Team Fundazioaren bidez bideratzen dira, eta fundazio horren memorian jasota daude.

Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroko (HTZ) teknikarien eta Euskadiko kirol federazioen artean modu koordinatuan lan egiten jarraitu da.

Dirulaguntza eman zaie 25 erakunderi, nazioarteko txapelketa ofizialetan, kategoria absolutuan eta beste 4 erakunderi kategoria goreneko emakumeen liga estataletan parte-hartzen laguntzeko, emaitza horiek baldintzatzen baitute nazioarteko ekintzetan parte hartzea.

Goi mailako nazioarteko 33 ekintza antolatzeko dirulaguntzak eman dira.

Foru-Aldundiekin lanean jarraitu da, etorkizuneko kirolarien jarraipena egiteko eta kirolari horiei laguntzeko. Hala, 2019an, 28 kirolari etorkizun handikotzat jo dira: 15 gizon eta 13 emakume.

***4. REFORZAR EL DEPORTE VASCO DE ALTO NIVEL***

*Se han examinado las solicitudes, calificado y declarado 67 deportistas, 7 técnicos y técnicas, y 1 juez y 1 jueza, de alto nivel, siendo publicadas las listas en dos ocasiones. Las ayudas al deporte de alto nivel se canalizan a través de la Fundación Basque Team en cuya memoria se recogen.*

*Se ha continuado con el trabajo de coordinación entre el personal técnico del Centro de Perfeccionamiento Técnico (CPT) de Fadura y las federaciones deportivas vascas.*

*Se ha subvencionado a 25 entidades para financiar la participación en competiciones oficiales de carácter internacional en categoría absoluta y a otras 4 en ligas estatales de mujeres, de máxima categoría, cuyo resultado condiciona la participación en eventos internacionales.*

*Se ha subvencionado la organización de 33 eventos internacionales de Alto Nivel.*

*Se ha continuado cooperando con las Diputaciones Forales en el seguimiento y ayuda a las y los deportistas talentos y promesas. En 2019 se han identificado 28 deportistas como promesa: 15 hombres y 13 mujeres.*

**5. ZERO TOLERANTZIA DOPINAREKIN**

Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak kiroleko dopinaren aurka borrokan jarraitu du, eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentzian sartzeko kudeaketa-lanak egin dira.

Kirol-federazioekin lankidetzan, kiroleko dopinaren aurkako programa garatu da, eta 312 kontrol egin zaizkie pertsonei eta 7 animaliei.

***5. TOLERANCIA CERO CONTRA EL DOPAJE***

*La Agencia Vasca Antidopaje ha continuado con su labor de lucha contra el dopaje en el Deporte y se han realizado gestiones para su integración en la Agencia Mundial Antidopaje.*

*En colaboración con las Federaciones Deportivas se ha desarrollado el programa contra el dopaje en el deporte, habiéndose realizado 312 controles a personas y 7 a animales.*

**6. ARIKETA FISIKO ETA KIROL SEKTOREAREN PROFESIONALIZAZIOA BULTZATZEA**

Kirolaren Euskal Eskolak kirol prestakuntza eskaintzeko funtzioari eutsi dio 2019an, eta 13 prestakuntza-ekintza antolatu ditu (594 parte-hartzaile: 448 gizon eta 146 emakume) eta kirol federazioek sustatutako entrenatzaileentzako 19 ikastaro baimendu eta ikuskatu ditu; prestakuntzaren inguruko ekintzak, agiriak eta berriak zabaldu ditu, bere komunikazio-kanalen bitartez (informazio-aldizkaria, web orria, sare sozialak) eta aholkularitza eskaini die Euskal Autonomia Erkidegoko kirol erakunde eta eragileei.

Kirol-arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea Legebiltzarrean onartzeko zain gaude.

***6. REFORZAR LA PROFESIONALIZACIÓN DEL SECTOR DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EL DEPORTE***

*La Escuela Vasca del Deporte ha mantenido a lo largo de 2019 su función formadora en el deporte, organizando un total de 13 actividades formativas (594 asistentes: 448 hombres y 146 mujeres), autorizando y supervisando un total de 19 cursos de entrenadores y entrenadoras promovidos por las federaciones deportivas, difundiendo tanto actividades como documentos y noticias de carácter formativo a través de sus diferentes canales de comunicación (boletín informativo, página web, redes sociales) y asesorando a las diferentes entidades y agentes del deporte de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

*Se está a la espera de que el Parlamento Vasco apruebe la nueva Ley sobre el Acceso y Ejercicio de Profesiones del Deporte.*

**7. JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOAN EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BENETAKO BERDINTASUNA LORTZEA**

2017an diseinatutako "Genero ikuspegia sartzeko estrategia 2017-2020" ezarri da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan.

Gizonen eta emakumeen arteko kiroleko berdintasunaren inguruko hainbat foro espezializatuetan parte hartu da, txostenak aurkeztu eta informazioa trukatu da.

Generoaren eta kirolaren inguruko prestakuntza-ekintzak diseinatu eta garatu dira zuzendaritzako langileentzat, gure egunerokoan ikuspegi hori txertatzeko.

Kirol arloko sexu jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari buruz informatu eta arreta emateko berariazko zerbitzua ematen jarraitu dugu, “Zure taldekoak gara/Somos de tu equipo”, telefonoz eta idatziz informazioa eta aholkularitza emanez, eta lehen laguntza presentziala eskainiz, hala eskatuz gero.

Emakunde eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, “Kirola Ahalduntze Gune Bezala” jardunaldia antolatu da Donostian, Gipuzkoako Batzar Nagusietako egoitzan.

***7. LOGRAR LA IGUALDAD REAL Y EFECTIVA DE MUJERES Y HOMBRES EN EL ÁMBITO DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EL DEPORTE***

*Se ha implementado la "Estrategia para la introducción de la perspectiva de género 2017-2020" para la Dirección de Actividad Física y Deporte diseñada en el 2017.*

*Se ha participado en diversos foros especializados en materia de igualdad de mujeres y hombres en deporte, presentando ponencias e intercambiando información.*

*Se han diseñado y desarrollado acciones formativas para el personal de la Dirección en materia de género y deporte, a fin de facilitar la incorporación de dicha perspectiva en nuestro trabajo diario.*

*Se ha continuado ofreciendo el servicio especializado de información y atención ante el abuso y el acoso sexual y acoso por razón de sexo en el ámbito deportivo, “Zure taldekoak gara/Somos de tu equipo” dando información y asesoramiento telefónico y escrito, ofreciendo un primer acompañamiento presencial si así fuese solicitado.*

*En colaboración con Emakunde y la Diputación Foral de Gipuzkoa se ha organizado la jornada: "El Deporte Espacio para el Empoderamiento” en la sede de las Juntas Generales de Gipuzkoa, en Donostia.*

**8. KIROL EGOKITUARI AUKERA BERRIAK EMATEA**

Kirol Egokituaren Euskal Plana lantzen jarraitzen da, GaituzSport proiektua ekonomikoki babestuz.

***8. DAR NUEVAS OPORTUNIDADES AL DEPORTE ADAPTADO***

*Se sigue trabajando en el Plan Vasco de Deporte Adaptado, apoyando económicamente el proyecto GaituzSport.*

**9. GURE KIROL AUTOKTONOAK BABESTEA**

Pilotaren, Arraunaren eta Herri Kirolen Plan Estrategikoak egiteko laguntzak eman dira.

***9. APOYAR NUESTROS DEPORTES AUTÓCTONOS***

*Se ha subvencionado la ejecución de los Planes Estratégicos de Pelota, Remo y Herri Kirolak.*

**10. EUSKARARI BIDEAK IREKITZEA KIROL ARLOAN, GAZTEEN ARTEAN BEREZIKI**

Kirol arloan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin euskara sustatzeko proiektuak bultzatu dira.

***10. ABRIR VÍAS AL EUSKERA EN EL DEPORTE, SOBRE TODO ENTRE LAS PERSONAS JÓVENES***

*Junto con la Viceconsejería de Política Lingüística, se han dinamizado proyectos para el fomento del euskara en el ámbito deportivo.*

“Euskal Kirolari" proiektua garatu da, kirolean euskararen erabilera sustatzeko. Sare sozialen bitartez batik bat.

*Se ha desarrollado el proyecto "Euskal Kirolari" para la promoción de la utilización del euskara en el deporte. A través, principalmente, de las redes sociales.*

**11. EUSKAL SELEKZIOEN ALDEKO ETA KANPO – PROIEKZIOA DUTEN POLITIKAK SUSTATZEA**

Kanpo-proiekzioa duten EAEko kirol-ekitaldiak antolatzen aritu gara elkarlanean.

Eusko Jaurlaritza Euskadiko kirol-federazioekin batera ari da lanean, aztertzeko legearen ikuspuntutik nazioarteko zein federaziotan sartzeko aukera dituzten euskal federazioek.

Hainbat kirol-federaziorekin egin dira bilerak, nazioarteko federazioetan sartzeko egin beharreko pausoak aztertzeko, orain dela gutxi Surf, Boxeo, Halterofilia edo Futboleko federazioekin egin den bezala.

Guztira 5 euskal kirol-federaziori eman zaie dirulaguntza (boxeoa, halterofilia, mendia, piraguismoa eta errugbia) ofizialtasunaren proiektua gauzatzeko: Euskadiko kirol-federazioek euskal kirol federatuaren nazioarteko ordezkaritza lortzea.

***11. IMPULSAR UNA POLÍTICA EN FAVOR DE LAS SELECCIONES VASCAS Y DE PROYECCIÓN EXTERIOR***

*Se ha colaborado en la organización de eventos deportivos en la CAE con potencial de proyección exterior.*

*El Gobierno Vasco junto con las federaciones deportivas vascas está trabajando e identificando aquellas federaciones internacionales cuya incorporación por parte de las federaciones vascas pueda ser factible desde el punto de vista de la legalidad.*

*Se han mantenido reuniones con diferentes federaciones deportivas para analizar los pasos a dar para incorporarse a las federaciones internacionales como recientemente hemos visto en el Surf, Boxeo, Halterofilia o en el Fútbol.*

*Se han subvencionado a un total de 5 federaciones deportivas vascas (boxeo, halterofilia, montaña, piragüismo y rugby) para llevar a cabo el proyecto de oficialidad: lograr la representación internacional del deporte federado vasco por parte de las federaciones deportivas de Euskadi.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
| --- | --- |
| 4513 KULTURAREN SUSTAPENA | *4513 PROMOCIÓN DE LA CULTURA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA | *10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| KULTURA SAILBURUORDETZA | *VICECONSEJERÍA DE CULTURA* |
| KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN DE LA CULTURA* |

**HELBURUA**

**1. KULTUR GOBERNANTZA HOBETZEA**

**2. SORKUNTZA-EHUNA SENDOTZEA**

**3. KULTUR ESKAINTZA SENDOTZEA**

**4. KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK SUSTATZEA**

***OBJETIVO***

***1. MEJORAR LA GOBERNANZA CULTURAL***

***2. FORTALECER EL TEJIDO CREATIVO***

***3. REFORZAR LA OFERTA CULTURAL***

***4. IMPULSAR LAS INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS***

**BETETZE MAILA**

**1. KULTUR GOBERNANTZA HOBETZEA**

1.1 Kulturaren Euskal Behatokia.

2019an informazioa sortzeko ohiko lanekin jarraitu dugu, horiexek ematen baitiote egonkortasuna estatistika-segidei, bai eta perspektiba, sendotasuna eta konparagarritasuna ere. Esparru estatistikoa ohiko estatistika-lan hauek gauzatu dute:

- “Arte eta Kultur Industriak 2017 Estatistika”. 2019an seigarren ekinaldiko landa-lanean lortutako datuen ustiapena egin da. Halaber, lehenengo aldiz burutu da “Sormen Industrien Estatistika 2017”.

- “Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta”. 2019an azterlan honen bigarren edizioan eskuratutako datuen ustiapena egin da.

- Luzetarako panela: “Kultura Ohiturak eta Kontsumoa” panelaren beste jasoaldi bat egin da, bosgarrena, zeina 204 panel-kidek osatzen duten. Azterlan horren emaitza dira: Kultura Ohituren panelaren buletina eta datuen azterketa txostena.

• KEBaren adierazle-sisteman urtean eguneratutako adierazle kopurua.

Ez da eguneratu inongo adierazlerik.

• Behatokiaren estatistika-emaitzen hartzaileen kopurua urtean:

3.100 hartzaile.

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. MEJORAR LA GOBERNANZA CULTURAL***

*1.1 Observatorio Vasco de la Cultura.*

*En el 2019 se ha continuado con el trabajo regular de generar información, que proporciona estabilidad a las series estadísticas, aportando perspectiva, consistencia y comparabilidad. El ámbito estadístico ha estado determinado por los siguientes trabajos estadísticos regulares:*

*- “Estadística de Artes e Industrias Culturales 2017”. En el 2019 se ha realizado la explotación de los datos obtenidos en el trabajo de campo de la sexta edición de la misma. Asimismo, se ha realizado la primera edición de la “Estadística de Industrias Creativas 2017”.*

*- “Encuesta de participación cultural en Euskal Herria”. Se ha realizado en 2019 la explotación de los datos obtenidos en el trabajo de campo de la segunda edición de la misma.*

*- Panel longitudinal: se ha realizado una nueva oleada, la quinta, del “Panel de Hábitos y Consumo Cultural” constituido por 204 panelistas. Se han emitido los correspondientes documentos: Boletín del Panel de Hábitos y el informe de análisis de los datos.*

• *Número anual de indicadores actualizados en el sistema de indicadores del OVC.*

*No se ha actualizado ningún indicador.*

• *Número anual de personas receptoras de resultados estadísticos del Observatorio:*

*3.100 personas.*

- Urteko ikerketa eta azterketa kopurua.

Informazio-sistema honi dagokionez: “Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturan 2017”. Landa-lanaren seigarren ekinaldia burutu da 2019an.

Luzetarako panela: “Kultura Ohiturak eta Kontsumoa” panelaren hurrengo landa-lana, seigarrena, gauzatu egin da.

“EAEko Artxiboak 2018” estatistikaren landa-lanari hasiera eman zaio.

- Urteko argitalpen elektroniko kopurua.

Kulturaren Euskal Behatokiak sortutako Kultura Estatistika eta Azterketen Bilduma:

40, 41, 42 zk. “Euskal Herriko parte-hartze kulturala”

43, 44 zk. “Arte eta Kultur Industriak 2017”

45, 46 zk. “Sormen Industriak 2017”

Bestelako azterketak eta argitalpenak:

Argitaratu dira “Umeak ere kulturazale”, “Kultura- eta sormen-sektoreen finantzaketa ereduak”, “Banaketak kulturan duen zereginari buruzko azterketa”, “Zientzia kultura-politiken esparruan” eta “Eskubide kulturalak”.

Kulturkaria hilabetekarian ezagutza-berriak zabaldu: 11 ale.

- Urteko jardunaldi eta lan bilera kopurua.

KEBaren Jarraipen Batzordeko bilera.

1.2 Kultura politikak partekatzea eta bistaratzea.

1.2.1 Kultura sektoreetako lantaldeak eta zeharkako lantaldeak.

- Lantalde eta batzorde sektorialen lan-bilera kopurua urtean.

5 bilera guztira. 2019an, XI. Legegintzaldirako proiektuak garatzen jarraitu da. Horien artean dago sektoreak berregituratzea edo sektorea berrantolatzea. 5 bilera egin dira, Ikus-entzunezkoen (1), Arte Eszenikoen (3) eta Liburuaren (1) sektoreetan.

- Zeharkako lantaldeen lan-bilera kopurua urtean.

Kultura Auzolanean proiektuaren barruan, guztira 6 bilera egin dituzten 3 lantalde egon dira: 3 HAKOBA Kulturari atxikitako "Genero-politikak museo eta arte-zentroetan" proiekturako; 2 "Genero-politikak eta -programak" proiekturako, eta 1 "Irakurketa sustatzeko planerako".

- Kudeatutako proiektu kopurua urtean.

2019an, Kultura Auzolanean programaren barruan, 6 proiektu garatzen jarraitu da; Kulturaren Euskal Kontseiluaren barruan 1 sektoriala eta 2 zeharkakoak: "Berrantolaketa sektoriala", "Genero-politikak eta -

- *Número anual de investigaciones y estudios realizados.*

*En cuanto al sistema de información: “Financiación y Gasto Público en Cultura 2017”. En el 2019 se ha realizado el trabajo de campo de la sexta edición.*

*Panel longitudinal: se ha realizado el trabajo de campo una de una nueva oleada, la sexta, del “Panel de Hábitos y Consumo Cultural”.*

*Se ha iniciado el trabajo de campo de la estadística “Archivos de la CAE 2018”.*

- *Número anual de publicaciones electrónicas.*

*Colección de estadísticas y estudios del Observatorio Vasco de la Cultura:*

*N. 40, 41, 42 “Participación Cultural en Euskal Herria”*

*N. 43, 44 “Artes e Industrias Culturales 2017”*

*N. 45, 46 “Industrias Creativas 2017”*

*Otros estudios y publicaciones:*

*Se han publicado los informes de “La infancia como público cultural”, “Modelos de financiación de los sectores culturales y creativos”, “Análisis de la distribución de la cultura”, “La ciencia en el marco de las políticas culturales” y “Derechos culturales”.*

*Difusión de noticias de conocimiento en los boletines mensuales Kulturkaria: 11 números.*

- *Número anual jornadas y encuentros de trabajo.*

*Reunión de la Comisión de seguimiento del OVC.*

*1.2 Compartir y visibilizar políticas culturales.*

*1.2.1 Grupos de trabajo de cultura sectoriales y transversales.*

- *Número de sesiones de trabajo anual de los grupos operativos y comisiones sectoriales.*

*5 reuniones en total. En 2019 se ha continuado con el desarrollo de los proyectos para la XI Legislatura. Entre estos se encuentra el de reestructuración de los sectores o reorganización sectorial. Se han realizado 5 reuniones, en los sectores de Audiovisuales (1), Artes Escénicas (3) y Libro (1).*

- *Número de sesiones de trabajo de los grupos operativos transversales.*

*Dentro de los proyectos de Kultura Auzolanean han trabajado 3 grupos de trabajo que han realizado un total de 6 reuniones: 3 para el proyecto “Políticas de género en Museos y Centros de Arte”, adscrito a HAKOBA Kultura; 2 para el proyecto de “Políticas y programas de género” y 1 para el “Plan de fomento de la lectura”.*

- *Número anual de proyectos gestionados.*

*En 2019 dentro de Kultura Auzolanean se ha continuado con el desarrollo de 6 proyectos; 1 sectorial y 2 transversales dentro del Consejo Vasco de la Cultura, a saber: “Reorganización sectorial”, “Políticas y programas*

programak" eta "Irakurketa sustatzeko plana". Talde operatiboen bilerez gain, azaroaren amaieran jardunaldi irekia egin zen liburuaren/literaturaren, musikaren, dantzaren eta antzerkiaren sektoreetako profesionalentzat, "Genero-politikak eta -programak" proiektuaren esparruan sortu diren emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostenak ezagutarazteko eta horien inguruan lan egiteko.

*de género" y "Plan de fomento de la lectura". Además de las reuniones de los grupos operativos, se celebró a finales de noviembre una jornada abierta para profesionales de los sectores del libro/literatura, la música, la danza y el teatro, para dar a conocer y trabajar en torno a los informes sobre la situación de mujeres y hombres que se han generado en el marco del proyecto "Políticas y programas de género", en referencia a estos sectores.*

HAKOBA Kulturaren esparruan, gainera, hiru proiektu hauek landu dira: "Genero-politikak museo eta arte-zentroetan", "Artistentzako kontratazio- eta ordainketa-baldintzak museoetan, arte-zentroetan eta kultura zabaltzeko beste espazio publiko batzuetan" eta "Sorkuntza-espazioen mapa". Azkenik, 2019an zazpigarren proiektu bat garatzen hasi da, zeharkako proiektu bat, kulturak komunikabideetan duen ikusgarritasunari buruzkoa.

*En el marco de HAKOBA Kultura, además, se ha trabajado, tanto en el marco de grupos de trabajo como en los plenarios, en torno a los siguientes 3 proyectos: "Políticas de género en Museos y Centros de Arte", "Condiciones de contratación y pago para artistas en museos, centros de arte y otros espacios públicos de difusión de la cultura" y "Mapa de espacios de creación". Finalmente, en 2019 se ha comenzado a desarrollar un séptimo proyecto, de carácter transversal sobre la visibilidad de la cultura en los medios de comunicación.*

1.2.2 Erakundeen arteko koordinazioa.

*1.2.2 Coordinación Interinstitucional.*

• Erakundearteko Taldearen lan-bilera kopurua urtean.

*• Número de sesiones de trabajo anual del Grupo Interinstitucional.*

2019an, erakunde arteko taldeak bilera bat egin du. Bilera horretan, koordinazio-lanez gain, 3 proiektutan lan egin da: "Genero-politikak museo eta arte-zentroetan", "Artistentzako kontratazio- eta ordainketa-baldintzak museoetan, arte-zentroetan eta kultura zabaltzeko beste espazio publiko batzuetan" eta "Sorkuntza-espazioen mapa".

*En 2019, el grupo interinstitucional ha realizado 1 reunión en la que más allá de las labores de coordinación se ha trabajado en 3 proyectos: "Políticas de género en Museos y Centros de Arte", "Condiciones de contratación y pago para artistas en museos, centros de arte y otros espacios públicos de difusión de la cultura" y "Mapa de espacios de creación".*

• Kulturaren Euskal Kontseiluaren osoko bilera kopurua urtean.

*• Número anual de sesiones plenarias del Consejo Vasco de la Cultura.*

2019an, Kulturaren Euskal Kontseilua behin bildu da. Bilera 2019ko irailean izan zen, eta Kultura Auzolanean programaren proiektuei buruzko egoeraz gain, 19/22 Kultura Plana aurkeztu zen.

*En 2019, el Consejo Vasco de la Cultura se ha reunido 1 vez. La reunión tuvo lugar en septiembre de 2019, presentándose además del estado acerca de los proyectos de Kultura Auzolanean, el Plan de Cultura 19/22.*

• Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteei emandako dirulaguntzen kopurua urtean.

*• Número anual de subvenciones concedidas a fundaciones y asociaciones vinculadas a partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.*

Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten 5 fundazio eta elkarteri eman zaie dirulaguntza.

*Se han concedido 5 subvenciones a fundaciones y a asociaciones vinculadas a partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.*

## 2. SORKUNTZA-EHUNA SENDOTZEA

## *2. FORTALECER EL TEJIDO CREATIVO*

2.1 Kultura sorkuntzarako laguntza espezifikoak.

*2.1 Ayudas específicas para creación cultural.*

a. Lagundutako koreografia-pieza berrien kopurua urtean: 9.

*a. Número anual de nuevas piezas coreográficas ayudadas: 9.*

Dantza sustatzeko dirulaguntza deialdiaren bidez koreografia laburreko 9 sorkuntza-lan lagundu ziren.

*En el ámbito de la convocatoria de ayudas para la promoción de la danza, se subvencionaron 9 proyectos de creación coreográfica de corta duración.*

'Dantzan Bilaka' programaren testuinguruan asteburu bateko ekitaldi bat antolatu zen non, beste jarduera batzuen artean, dantzako 9 pieza labur aurkeztu ziren.

*En el contexto del programa 'Dantzan Bilaka' se organizó un evento de fin de semana en el que, entre otras actividades, se presentaron 9 piezas cortas de danza.*

b. Lagundutako musika-sorkuntza berrien kopurua urtean: 9.

*b. Número anual de nuevas composiciones musicales ayudadas: 9.*

Kultura Sorkuntzaren dirulaguntzen deialdiaren bidez, musika-konposizioaren modalitatearen barruan 9 proiektu lagundu ziren.

c. Sortutako gidoi zinematografiko berrien kopurua urtean: 8.

6 proiektu diruz lagundu dira, 30 urtetik gorako gidoilarien gidoietarako, edo 30 urtetik beherakoa izanik, dagoeneko zinema-areto komertzialetan erakusteko moduko film luzeren batean gidoilari agertu direnen gidoietarako, eta 30 urtetik beherakoa izanik pelikularik estreinatu ez dutenen kasuan 2 proiektu lagundu dira diruz.

d. Lagundutako antzerki-testu berrien kopurua urtean: 8.

Guztira 8 laguntza banatu dira, 4 euskarazko testuetarako eta beste 4 gaztelaniazko testuetarako.

e. Arte plastiko eta ikusizkoetan sorkuntza eta ekoizpenerako lagundutako proiektu berrien kopurua urtean: 41.

f. Literaturan diruz lagundutako proiektu berrien kopurua urtean: 10.

Guztira 10 laguntza banatu dira, 5 gazteentzako literatura testuak sortzeko eta 5 ipuin edo eleberri motzak idazteko.

g. Ilustrazioan diruz lagundutako proiektu berrien kopurua urtean: 7.

h. Lagundutako sorkuntza ikerketa-proiektu berrien kopurua urtean: 12.

i. Sorkuntzan emakumeek burututako eta diruz lagundutako proiektu berrien kopurua urtean: 66.

j. Sorkuntzan gizonek burututako eta diruz lagundutako proiektu kopurua urtean: 37.

k. Sorkuntzan euskaraz burututako eta diruz lagundutako proiektu kopurua urtean: 28.

Guztira euskarazko 28 proiektu lagundu dira.

l. Lagundutako sorkuntza gune kopurua urtean: 12.

m. Berdintasun plana duten eta lagundutako sormen lantegi kopurua.

2.2 Kultura sektoreko profesionalen prestakuntzarako laguntza espezifikoak.

a. Kultura sektoreko profesionalentzako etengabeko prestakuntzan parte hartutako emakumeak: 14.

Arte eszenikoen sektoreko etengabeko prestakuntza-ikastaroak antolatzen 14 emakumek parte hartu dute guztira.

b Kultura sektoreko profesionalentzako etengabeko prestakuntzan parte hartutako gizonak: 10.

Arte eszenikoen sektoreko etengabeko prestakuntza-ikastaroak antolatzen 10 gizonezkok parte hartu dute guztira.

*A través de la convocatoria de subvenciones para la Creación Cultural, modalidad de composición musical, se apoyaron 9 proyectos.*

*c. Número anual de nuevos guiones cinematográficos ayudados: 8.*

*Se han concedido 6 ayudas a guiones escritos por guionistas de más de 30 años o guionistas jóvenes que constan como guionistas en alguna película de largometraje calificada para su exhibición comercial en salas cinematográficas, y 2 ayudas para guionistas jóvenes que no cumplían este último requisito.*

*d. Número anual de nuevos textos teatrales ayudados: 8.*

*Se ha concedido un total de 8 ayudas, 4 a textos escritos en castellano, 4 a textos en euskera.*

*e. Número anual de nuevos proyectos de creación y producción de artes plásticas y visuales apoyados: 41.*

*f. Número anual de nuevos proyectos de literatura apoyados: 10.*

*Se han concedido un total de 10 ayudas, 5 para la creación de textos literarios juveniles y 5 para cuentos y novelas cortas.*

*g. Número anual de nuevos proyectos de ilustración apoyados: 7.*

*h. Número anual de nuevos proyectos de investigación creativa apoyados: 12.*

*i. Número anual de nuevos proyectos de creación realizados por mujeres apoyados: 66.*

*j. Número anual de nuevos proyectos de creación realizados por hombres apoyados: 37.*

*k. Número anual de nuevos proyectos de creación en euskera apoyados: 28.*

*Se han apoyado un total de 28 proyectos.*

*l. Número anual de centros de creación apoyados: 12.*

*m. Número anual de centros de creación apoyados con planes de igualdad de género incorporados.*

*2.2 Ayudas específicas a la formación de profesionales sectoriales de la cultura.*

*a. Número anual de participantes mujeres en la formación para profesionales de los diferentes sectores culturales:14.*

*En la organización de los cursos de formación permanente en el sector de las artes escénicas han participado un total de 14 mujeres.*

*b. Número anual de participantes hombres en la formación para profesionales de los diferentes sectores culturales: 10.*

*En la organización de los cursos de formación permanente en el sector de las artes escénicas han participado un total de 10 hombres.*

c. Arte eszenikoen profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako eta laguntzarako proiektu kopurua urtean: 8.

Guztira 8 proiektu lagundu dira.

d. Ikusentzunezkoen profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako eta laguntzarako proiektu kopurua urtean.

2.3 Sortzaileen ikusgarritasuna.

Euskadi Literatura Sariak.

2019. urtean, deitutako zazpi sariak eman dira. Halaber, azaroan Kultura eta Hizkuntza Politika sailak sariak emateko ekitaldia antolatu zuen, eta horretan Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta Iñigo Urkullu Lehendakariak hartu zuten parte.

1. Euskarazko literatura: Irati Elorrietaren Neguko argiak lana.
2. Gaztelaniazko literatura: Ramon Ederren Palmeras solitarias.
3. Euskarazko haur- eta gazte-literatura: Patxi Zubizarretak idatzitako Korri, Kuru, korri! lana.
4. Euskarazko literatura-itzulpena: Isabel Etxeberriak itzulitako Alice Munroren Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak lana.
5. Literatura-lanaren ilustrazioa: Asisko Urmenetak ilustratutako AztiHitza lana.
6. Euskarazko Saiakera: Juan Carlos Etxegoienen (Xamar) Etxera bidean lana.
7. Gaztelaniazko Saiakera: Daniel Innerarityren Política para perplejos lana.

Aurkeztutako Euskadi literatura-sarietarako hautagaien kopurua urtean.

Euskadi literatura-sarietara aurkeztutako hautagaiak 81 izan dira guztira. Horrela banatu dira sarien modalitateen arabera: Euskarazko literatura (8), Gaztelaniazko literatura (15), Euskarazko haur- eta gazte-literatura (15), Euskarazko literatura-itzulpena (11), Literatura-lanaren ilustrazioa (14), Euskarazko saiakera (8) eta Gaztelaniazko saiakera (10).

a. Euskadi literatura-sarietan emakumezko saridun kopurua urtean: 2.

b. Euskadi literatura sarietan gizonezko saridun kopurua urtean: 5.

Zazpi Euskadi literatura sari eman dira 2019. urtean, eta horietatik bi emakumeei (% 29a).

c. Aurkeztutako Euskadi literatura sarietarako emakumezko hautagai kopurua urtean: 34.

d. Aurkeztutako Euskadi literatura sarietarako gizonezko hautagai kopurua urtean: 47.

Euskadi literatura-sarietako modalitate bakoitzean aurkeztutako lan hautagaien artean, hauek izan dira gizonen eta emakumeen kopuruak:

*c. Número anual de proyectos de formación permanente y apoyo a profesionales de las artes escénicas: 8.*

*Se han apoyado un total de 8 proyectos.*

*d. Número anual de proyectos de formación permanente y apoyo a profesionales de las audiovisuales.*

*2.3 Visibilización del colectivo creador.*

*Premios literarios Euskadi.*

*En el año 2019, se han concedido los siete premios convocados. Asimismo, en noviembre se ha organizado el acto de entrega de los mismos con la presencia del Consejero de Cultura y Política Lingüística, y el Lehendakari Iñigo Urkullu.*

*1. Literatura en euskera: Neguko argiak de Irati Elorrieta.*
*2. Literatura en castellano: Palmeras solitarias de Ramon Eder.*
*3. Literatura infantil y juvenil en euskera: Korri, Kuru, korri! de Patxi Zubizarreta.*
*4. Traducción literaria al euskera: Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak (Alice Munro) por Isabel Etxeberria.*
*5. Ilustración de obra literaria: la obra AztiHitza de Asisko Urmeneta.*
*6. Ensayo en euskera: Etxera bidean de Juan Carlos Etxegoien (Xamar).*
*7. Ensayo en castellano: Política para perplejos de Daniel Innerarity.*

*Número anual de candidaturas presentadas a los premios literarios Euskadi.*

*El número total de candidaturas presentadas a los premios literarios Euskadi ha sido de 81, repartidas de la siguiente manera entre las diferentes modalidades: Literatura en euskera (8), Literatura en castellano (15), Literatura infantil y juvenil en euskera (15), Traducción literaria al euskera (11), Ilustración de obra literaria (14), Ensayo en euskera (8) y Ensayo en castellano (10).*

*a. Número anual de premios literarios Euskadi concedidos a mujeres: 2.*

*b. Número anual de premios de Literatura de Euskadi concedidos a hombres: 5.*

*Dos de los siete premios literarios Euskadi concedidos en el año 2019 han sido para mujeres (29 %).*

*c. Número anual de candidaturas de mujeres presentadas a los premios de Literatura de Euskadi: 34.*

*d. Número anual de candidaturas de hombres presentadas a los premios de Literatura de Euskadi: 47.*

*Para cada una de las modalidades de los premios literarios Euskadi, el número de obras candidatas de hombres y mujeres ha sido el siguiente:*

Euskarazko literatura: 8 hautagaietatik 3 emakume (% 38).

Gaztelaniazko literatura: 15 hautagaietatik 4 emakume (% 27).

Euskarazko haur eta gazte literatura: 15 hautagaietatik 5 emakume (% 33).

Euskarazko literatura-itzulpena: 11 hautagaietatik 8 emakume (% 73).

*La Comisión Especial Universo de la Juventud y euskera se ha reunido por tercera vez en esta legislatura, el 14 de febrero de 2019 en Vitoria-Gasteiz. En esa reunión se ha reflexionado acerca de las jornadas que se celebraron en noviembre de 2018 sobre la juventud y el euskera, y se ha definido el programa de trabajo para 2019.*

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak 6 bilera egin ditu. Bilera horietan 4 hiztegi terminologiko onartu ditu: Zirkulazioa (1.125 sarrera), Lorezaintza (350 sarrera), Banka eta Aurrezkia (371 sarrera) eta Feminismoa eta berdintasuna (150 sarrera). Gainera, 3 terminoren azterketa puntuala egin eta erabakiak hartu ditu: 'tutela judicial efectiva', 'carga / gravamen' eta 'justicia restaurativa'. Horrez gain, 5 batzorde tekniko antolatu dira hiztegi hauek aztertzeko: Aseguruak, Administrazio elektronikoa, Akuikultura, Kardiologia (amaitu gabe) eta Feminismoa eta Berdintasuna.

*La Comisión de Terminología del Consejo Asesor del euskera ha llevado a cabo 6 reuniones en las que ha aprobado 4 diccionarios terminológicos: Zirkulazioa (Circulación, 1.125 entradas), Lorezaintza (Jardinería, 350 entradas), Banka eta Aurrezkia (Banca y Ahorro, 371 entradas) y Feminismoa eta berdintasuna (Feminismo e igualdad, 150 entradas). Además, ha realizado análisis y estudios puntuales de 3 términos y ha tomado decisiones sobre ellos: 'tutela judicial efectiva', 'carga / gravamen' y 'justicia restaurativa'. Asimismo, se han organizado 5 comisiones técnicas para analizar los siguientes diccionarios: Aseguruak (Seguros), Administrazio elektronikoa (Administración electrónica), Akuikultura (Acuicultura), Kardiologia (Cardiología, sin acabar) y Feminismoa eta Berdintasuna (Feminismo e Igualdad).*

Euskararen Aholku Batzordeko Toponimiako batzorde-atal Bereziak bi bilera egin ditu. Egindako lanak: Toponimia-lanerako metodologia onartu da bai eta udalerri barruko leku-izenak ofizialtzeko prozedura ere; toponimia-lanerako irizpide soziolinguistikoak landu dira Euskaltzaindiarekin batera; "EAEko toponimoak kartografia ofizialean txertatzeko irizpideak" dokumentua eguneratu da. Horrez gain, Toponimia Batzorde-atal Bereziaren baitan sortutako irizpide kartografikoak lantzeko lantaldea bost aldiz bildu da. Egindako lanak: Entitate Geografikoak Hiztegia lantzea eta entitateen kodeketa finkatzea.

*Se han celebrado dos reuniones de la Comisión Especial de Toponimia del Consejo Asesor del euskera. Trabajos realizados: se han aprobado la metodología para el estudio de la Toponimia, así como el procedimiento para la oficialización de los nombres de lugar que se encuentran dentro de los municipios; se han analizado criterios sociolingüísticos para su aplicación en la toponimia junto a la Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia; se ha actualizado el documento de "Criterios para incluir topónimos de la CAE en la cartografía oficial". Además, el grupo de trabajo para la elaboración de criterios cartográficos creado en el seno de la Comisión Especial de Toponimia se ha reunido en cinco ocasiones. Trabajo realizado: la elaboración del Glosario de Entidades Geográficas, así como su codificación.*

3. Euskararen Aholku Batzordeak azken urte hauetan egindako lanen ondorioak gizarteratzeko ez da egitasmo berezirik abian jarri; ohiko bideak mantendu dira (web gunea).

*3. No se han puesto en marcha iniciativas para seguir difundiendo en el seno de la sociedad las conclusiones de los trabajos realizados por el Consejo Asesor del euskera en los últimos años. Se han mantenido los canales habituales (página web).*

4. ESEPen jarraipena eta tarteko ebaluazioa osatzen jarraitu da, eta hainbat atal osatu dira. Hutsune nagusiak identifikatu dira eta horiek konpontzeko bideak aztertzen hasi dira.

*4. Se ha seguido realizando el seguimiento y la evaluación intermedia del ESEP, y así, se han completado varias partes. Se han identificado las carencias principales y se ha iniciado un proceso de reflexión para dar respuesta a dichas carencias.*

5. ESEP ez daukaten toki-erakundeetan berau martxan jartzen laguntzen jarraitu dugu. ESEP garatzeko falta diren gehienak herri txikiak dira eta oso euskaldunak; berez, euskaraz bizi direnak. Herri txiki horietan UEMAk egiten du funtzio hori gure dirulaguntza zuzenean horrela ezarrita dagoelako.

*5. Se ha continuado colaborando en la puesta en marcha del ESEP en las entidades locales que no lo disponen. La mayoría de los que faltan por desarrollar ESEP son pueblos pequeños y muy euskaldunes; de hecho, los que viven en euskera. En esos pueblos pequeños UEMA realiza esa función porque así está establecida en nuestra subvención directa.*

6. Herri Aginteen Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA) dinamizatzen jarraitu da, gainerako herri erakundeekin lankidetzan. 2019an HAKOBAren batzorde politikoa 3 aldiz bildu da. HAKOBAren azpibatzorde teknikoa 7 aldiz bildu da, eta EAEko administrazioen arteko euskarazko harremanak areagotzeko Berdintasun alorreko teknikarien proiektua zabaldu egin da Kultura arloko langileengana. 600 bat langilek hartzen dute parte. Administrazioen arteko euskarazko harremanak areagotzeko metodologia bat ere diseinatu eta erakunde guztien eskura jarri da.

*6. Se ha continuado con la dinamización de la Comisión de Coordinación de los Poderes Públicos (HAKOBA) en colaboración con el resto de instituciones públicas. En 2019 el comité político de HAKOBA se ha reunido en 3 ocasiones. La subcomisión técnica de HAKOBA se ha reunido en 7 ocasiones y se ha ampliado el proyecto para intensificar las relaciones entre administraciones de la CAE en euskera del personal técnico de igualdad al personal del área de Cultura. Participan unos 600 trabajadores y trabajadoras. También se ha diseñado y puesto a disposición de todas las instituciones una metodología para intensificar las relaciones entre las administraciones en euskera.*

**3. EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA HERRI ADMINISTRAZIOETAN**

1. 86/1997 Dekretua aldatzeko proposamena hainbat erakunde eta eragileri ezagutarazi eta gero, Tramitagunen hasierako agindua 2019ko azaroan sartu zen eta audientzia fasea igaro ere bai. Urtearen amaieran adituek hartu zuten zirriborroa erredakzio juridiko hobea emateko.

2. HAKOBAn adostutako "administrazioen arteko euskarazko komunikazioak" izeneko ekimena abian jarri zen 2019ko maiatzean kultura arloko teknikarien artean, aurretik zetorren genero berdintasunari buruzko ekimenaz gain. Horretarako, hasierako diagnostiko estatistikoa egin zen udaberrian eta maiatzean aurkeztu eta banatu erakunde guztiei. Horren ostean metodologiarako dokumentu bat osatu zen, parte hartzen duten erakunde guztietara zabaldu zena.

3. Sailetako eta erakunde autonomiadunetako Euskara Atalak dinamizatzen jarraitu dugu; hartara, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra bitan batu da 2019an, eta Hizkuntza Normalkuntza Teknikarien Batzordea beste bitan. Horrez gain, 70 bilera egin dira, taldeka edo banaka, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetako hizkuntza normalkuntzako teknikariekin, aholkularitza eman eta koordinazioa bermatzeko. Hauexek izan dira emaitzak: Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadun guztiek onartu dituzte euren Plan Estrategikoak VI. Plangintzaldirako (guztira, 12 sail eta 8 erakunde autonomiadun). Urteko zuzendaritza mailako kudeaketa planei dagokienez, 103 zuzendaritzek (guztizkoaren %64) onartu egin dituzte dagozkien kudeaketa planak. Beraz, Eusko Jaurlaritzako 3.358 langile euskararen erabilerarako plan baten eraginpean daude (guztizkoaren %45,2).

4. Osakidetza, Hezkuntzako irakasleak, Ertzaintza eta Justizia Administrazioa biltzen dituen Mahai Sektorialaren Batzordeko solaskideekin harremana eta koordinazioa badagoen arren, Mahai Sektorialaren Batzordea ez da propio batu hizkuntza normalizazioaren alorrean sektoreko erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko. 86/1997Dekretua berritzeko lanetan batzorde honetako partaideekin 8 aldiz bildu zen HPS, erakunde bakoitzarekin 2 bilera, gure asmoak azaltzeko.

5. Eusko Jaurlaritzan euskara lan hizkuntza izateko helburuz, Eusko Jaurlaritzako dokumentu erabilienak estandarizatzeko lanak egiteko kontratua esleitu zen 2019ko urriaren 28an, eta enpresa lanean ari da, kontratuan zehaztutakoarekin bat.

6. Administrazio publikoak bultzatu dira Bikain ebaluazio prozesurara aurkez daitezen. 2019an, Bikain ziurtagiria lortu duten 33 erakundeetatik 15 administraziokoak ziren.

***3. INCREMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS***

*1. Tras dar a conocer la propuesta de modificación del Decreto 86/1997 a diversas instituciones y agentes, la orden inicial se subió a Tramitagune en noviembre de 2019 y ya está pasada la fase de audiencia. A finales de año los expertos y las expertas tomaron el borrador para darle un una redacción jurídica mejor.*

*2. En mayo de 2019 se puso en marcha la iniciativa acordada en HAKOBA "comunicaciones entre administraciones en euskera" entre el personal técnico de cultura, además de la iniciativa anterior sobre igualdad de género. Para ello, se realizó un diagnóstico estadístico inicial que fue presentado y distribuido a todas las instituciones en primavera y mayo. Posteriormente se elaboró un documento metodológico que se extendió a todas las entidades participantes.*

*3. Se ha continuado con la dinamización de las Unidades de Euskera de los Departamentos y Organismos Autónomos, de forma que la Comisión Permanente de Lenguas Oficiales del Gobierno Vasco se ha reunido en dos ocasiones en 2019 y la Comisión de Técnicos de Normalización Lingüística en otras dos. Además, se han realizado 70 reuniones, grupales o individuales, con personal técnico de normalización lingüística de los Departamentos y Organismos Autónomos del Gobierno Vasco, para asesorar y garantizar la coordinación. Los resultados han sido los siguientes: todos los Departamentos y Organismos Autónomos del Gobierno Vasco han aprobado sus Planes Estratégicos para el VI. Período de Planificación (en total, 12 departamentos y 8 organismos autónomos). En cuanto a los planes de gestión anuales a nivel de dirección, 103 direcciones (64% del total) han aprobado sus respectivos planes de gestión. Por lo tanto, 3.358 trabajadores y trabajadoras del Gobierno Vasco están afectados por un plan de uso del euskera (45,2% del total).*

*4. Si bien existe relación y coordinación con los interlocutores y las interlocutoras de la Comisión de la Mesa Sectorial, que agrupa a Osakidetza, al profesorado de Educación, a la Ertzaintza y a la Administración de Justicia, la Comisión de la Mesa Sectorial no se ha reunido expresamente para incrementar la coordinación entre las diferentes organizaciones del sector en materia de normalización lingüística. En la renovación del Decreto 86/1997, la VPL se reunió en 8 ocasiones con los miembros de esta comisión, 2 reuniones con cada institución para exponer nuestras intenciones.*

*5. Con el fin de que el euskera sea lengua de trabajo en el Gobierno Vasco, el contrato para la realización de los trabajos de estandarización de los documentos más utilizados del Gobierno Vasco se adjudicó el 28 de octubre de 2019, y la empresa está trabajando de acuerdo con lo especificado en el contrato.*

*6. Se ha invitado a las administraciones públicas a que se presenten al proceso de evaluación Bikain. De las 33 entidades que han obtenido el certificado Bikain en 2019, 15 pertenecen a la administración.*

7. Bikain ebaluazio prozesuaren kudeaketan lagundu du HPSko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako 4 partaidek, eta 300na ordu inbertitu dute Bikaineko Idazkaritzako eta Artezkari Kontseiluko bilera eta lanetan.

*7. Han colaborado en la gestión del proceso de evaluación Bikain 4 miembros de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas de la VPL y han invertido cada uno 300 horas en las reuniones y trabajos de la Secretaría de Bikain y del Consejo Rector.*

8. Eusko Jaurlaritzan eta bere erakunde autonomiadunetan euskararen erabilera plana bultzatzeko Bikaineko ebaluazio-simulazioa egiteko eskaerarik ez da egin.

*8. No se ha solicitado la realización de un simulacro de evaluación de Bikain para el impulso del plan de uso del euskera en el Gobierno Vasco y sus organismos autónomos.*

9. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei lotuta dauden sozietate publikoetan zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan erabilera planen garapenerako ekimenak bultzatzen jarraitu dugu 2019an. Era berean, egoera onenean dauden sozietate publikoak BIKAIN ebaluazioa egitera bultzatu ditugu.

*9. En 2019 se ha continuado impulsando iniciativas para el desarrollo de planes de uso en las sociedades públicas y entes públicos de derecho privado vinculados a las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Asimismo, hemos impulsado a las sociedades públicas que se encuentran en mejor situación a realizar la evaluación Bikain.*

10. Sozietate publiko txiki eta baliabide urriagokoei itzulpen laburrak egiteko doako aplikazioa eskaintzen jarraitu dugu. itzulpen laburretarako zerbitzuak guztira 64 entitate erabiltzaile ditu. 2019an, 7 entitate berrik eskatu dute erabiltzaile izatea. 64 horietatik 19k 324 itzulpen-eskaera egin dituzte, hain zuzen ere.

*10. Se ha continuado ofreciendo una aplicación gratuita para la realización de traducciones cortas a sociedades públicas más pequeñas y con menos recursos. El servicio de traducción breve cuenta con un total de 64 entidades usuarias. En 2019, 7 nuevas entidades han solicitado ser usuarias. De estas 64, 19 han realizado 324 solicitudes de traducción.*

11. Euskara maila ezberdinak neurtzeko eta egiaztatzeko sistemak hobetzeko lanetan sakontzen jarraitu zen eta 2019ko urtarrilean UNEDek, EHUk eta Euskararen Erakunde Publikoak egindako euskara tituluen baliokidetzari buruzko eskaerei erantzuna eman zitzaien arlo teknikoan.

*11. Se continuó profundizando en la mejora de los sistemas de medición y acreditación de los diferentes niveles de euskera y en enero de 2019 se dio respuesta técnica a las peticiones realizadas por la UPV, UNED y el Organismo Público del Euskera sobre la homologación de varios de sus títulos de euskera.*

12. 47/2012 Dekretuak euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesten dituen pertsonen datuak Euskarazko Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan urtero erregistratzen direla ziurtatu dugu. Hartara, 2018-2019 ikasturteari dagozkion B1 eta B2 ziurtagiriak egiaztatzetik salbuetsitakoen datuak badaude Euskarazko Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. C1 eta C2 ziurtagirien kasuan, 2018-2019 ikasturtean Euskal herriko Unibertsitatean (EHU-UPV) ikasketa ofizialak bukatu dituzten ikasleen datuak baino ez daude Euskarazko Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, unibertsitate pribatuek ez baitigute daturik eman.

*12. Se ha comprobado que los datos de las personas a las que el Decreto 47/2012 exime de acreditar el nivel de euskera mediante títulos y certificados lingüísticos se registran anualmente en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera. Así, existen datos en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera de personas exentas de acreditación de los certificados B1 y B2 correspondientes al curso 2018-2019. En el caso de los certificados C1 y C2, en el Registro Unificado de Títulos y Certificados en Euskera sólo se dispone de los datos del alumnado que ha finalizado estudios oficiales en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU-UPV) durante el curso 2018-2019, ya que las universidades privadas no nos han facilitado datos.*

13. EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartea) lankidetzan, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan udalen arteko euskarazko komunikazioak bultzatu dira Herri Aginteen Koordinazio Batzordearen (HAKOBA) aginduari jarraikiz.

*13. En colaboración con EUDEL (Asociación de Municipios Vascos), se han impulsado las comunicaciones intermunicipales en euskera en los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, siguiendo el mandato de la Comisión de Coordinación de los Poderes Públicos (HAKOBA).*

14. EUDELi (Euskadiko Udalen Elkartea) dirulaguntza zuzena eman zitzaion Euskal udalerrietan Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) diseinatzeko eta garatzeko.

*14. Se concedió la subvención directa a EUDEL (Asociación de Municipios Vascos) para el diseño y desarrollo del Plan de Acción para la Promoción del Euskera en los municipios vascos (ESEP).*

15. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin (UEMA) lankidetzan, mankomunitate horren barruan dauden udal horietan Bikainen Erreferentzia Marko Estandarrean oinarritutako euskara planak garatu dira 2019an zehar. UEMAko udalak Bikainera aurkez daitezen sustatu da HPS

*15. En colaboración con la Mancomunidad de Municipios Vascohablantes (UEMA), a lo largo de 2019 se han desarrollado planes de euskera basados en el Marco de Referencia Estándar de Bikain. Se ha impulsado que los ayuntamientos de UEMA se presenten a Bikain entre la VPL*

eta UEMAren artean. UEMAko 6 udal aurkeztu dira Bikainera.

Era berean, UEMArekiko lankidetza adostu da, eta horren ondorioz, udalerri euskaldunetako ikerketa, aplikazio eta hedapen berezituak jorratu dira Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren arloan.

16. Herri administrazioetan euskararen erabilera plana kudeatzeko Erreferentzia Marko Estandarraren arabera egindako aplikazio informatikoaren (HIZKETA) erabilera erraztu eta bultzatu da. Horren ondorioz, HIZKETA aplikazioa 130 erakunde publikok erabiltzen dute. Gutxienez 120 administraziok erabiltzen dute Erreferentzia Marko Estandarra euren erabilera planak egiteko.

17. ELEBIDEko 2018ko oroitidazkia argitaratu zen 2019ko ekainean.

18. 2019an zehar aholkularitza eskaini zaie 60 herri administraziori, euskararen erabilera planen jarraipenerako eta ebaluaziorako. Horrez gain, aholkularitza eskaini diegu 6 sozietate publikori, euskararen erabilera planen jarraipenerako eta ebaluaziorako. Zehazki, aholkularitza eskaini diegu Plan estrategikoak edota Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak HPSren metodologiaren arabera egiteko.

19. Sozietate publikoen errolda eguneratu dugu hizkuntza-plangintzan duten garapenaren arabera, eta Erabilera Planak HPSren metodologiaren arabera egin ditzaten aholkularitza eskaintzen jarraitu dugu. Zehazki, 2019an galdetegi bat bidali zaie 257 sozietate publikori, egoeraren diagnostikoa osatu eta eremu horretan euskararen normalizazioan eragin ahal izateko.

20. Hizkuntza normalizaziorako teknikarientzat eta hirigintza zein ingurugiro teknikarientzat, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko 9 prestakuntza saio egin dira, denetara 180 teknikarirentzat. Hizkuntza normalizaziorako teknikarientzat interesgarriak diren formazio saioak antolatu ditugu, jardunbide egokiak partekatzeari begira. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetako hizkuntza normalkuntzako teknikariek 2019ko azaroan “Genero ikuspegia hizkuntza politikan nola txertatu” ikastaroa hartu dute, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren eta Saileko berdintasun unitatearen ekimenez, eta IVAPen bitartez.

### 4. EUSKARAN EGOERARI ETA BILAKABIDEARI BURUZKO IKERKETA SUSTATZEA

1. Euskararen Adierazle Sistema (EAS) proiektuan honako lan hauek egin dira:

- Gaur egun 41 adierazle eta 42 azpi-adierazle aurki daitezke web aplikazioan.
- 9 adierazle eta 8 azpi-adierazle berri gehitu dira.
- 13 adierazle eta 2 azpi-adierazle eguneratu egin dira.

*y UEMA. 6 ayuntamientos de UEMA se han presentado a Bikain.*

*Asimismo, se ha acordado colaborar con UEMA, y como consecuencia de ello, se han abordado las investigaciones, aplicaciones y ampliaciones diferenciadas de los municipios euskaldunes en materia de Evaluación de Impacto Lingüístico.*

*16. Se ha facilitado e impulsado el uso de la aplicación informática (HIZKETA) elaborada según el Marco de Referencia Estándar para la gestión del plan de uso del euskera en las administraciones públicas. En consecuencia, la aplicación HIZKETA es utilizada por 130 entidades públicas. Al menos 120 administraciones utilizan el Marco de Referencia Estándar para realizar sus planes.*

*17. En junio de 2019 se publicó la memoria de 2018 de ELEBIDE.*

*18. A lo largo de 2019 se ha asesorado a 60 administraciones públicas para el seguimiento y evaluación de los planes de uso del euskera. Además, se ha asesorado a 6 sociedades públicas para el seguimiento y evaluación de los planes de uso del euskera. En concreto, se ha ofrecido asesoramiento para la elaboración de Planes Estratégicos y/o Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales, según la metodología de la VPL.*

*19. Se ha actualizado el censo de sociedades públicas en función de su desarrollo en materia de planificación lingüística y se ha continuado ofreciendo asesoramiento para la elaboración de los Planes de Uso según la metodología de la VPL. En concreto, en 2019 se ha enviado un cuestionario a 257 sociedades públicas para completar el diagnóstico de situación y poder incidir en la normalización del euskera en este ámbito.*

*20. Para los técnicos y las técnicas de normalización lingüística, urbanismo y medio ambiente se han realizado 9 sesiones formativas de Evaluación de Impacto Lingüístico, en total 180 técnicas y técnicos han participado. Hemos organizado sesiones formativas de interés para los técnicos y las técnicas de normalización lingüística, de cara a compartir buenas prácticas. En concreto, el personal técnico de normalización lingüística de los Departamentos y Organismos Autónomos del Gobierno Vasco ha asistido en noviembre de 2019, a iniciativa de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas y de la Unidad de igualdad del Departamento, y a través del IVAP, al curso “Cómo integrar la perspectiva de género en la política lingüística”.*

### *4. FOMENTAR LA INVESTIGACIÓN RELATIVA A LA SITUACIÓN Y EL DESARROLLO DEL EUSKERA*

*1. En el Sistema de Indicadores del Euskera (EAS) se han llevado a cabo las siguientes tareas:*

- *Actualmente la aplicación web cuenta con 41 indicadores y 42 subindicadores.*
- *Se han añadido 9 nuevos indicadores y 8 subindicadores.*
- *Se han actualizado 13 indicadores y 2 subindicadores.*

• Euskarak arlo sozioekonomikoan duen egoera azaltzeko, 5 adierazle definitu eta igo dira EAS aplikaziora.

*• Para medir la presencia del euskera en el ámbito socioeconómico, se han definido y subido 5 indicadores a la aplicación EAS.*

• 39 fitxa tekniko igo dira aplikaziora euskaraz eta gaztelaniaz.

*• Se han subido a la aplicación 39 fichas técnicas en euskera y en castellano.*

• 31 excel taula igo dira aplikaziora.

*• Se han subido a la aplicación 31 tablas de Excel.*

• Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuan eta Estatistikan oinarrituta, EAEko eskualde eta udalerri mailako 4 adierazle definitu eta igo dira EAS aplikaziora.

*• A partir del Censo y de la Estadística de Población y Vivienda, se han definido y subido 4 indicadores de nivel comarcal y municipal de la CAE a la aplicación EAS.*

• Euskararen egoera eta bilakaera aisialdian eta kirolean aztertzeko lantaldeak lanean jarraitu du.

*• El grupo de trabajo encargado de analizar la situación del euskera en el deporte y el tiempo libre ha continuado con su labor.*

• 2018ko urtekaria argitaratu da 4 hizkuntzatan (EU, ES, FR eta EN).

*• Se ha publicado el anuario de 2018 en cuatro idiomas (EU, ES, FR y EN).*

• EASen agerkari digital berria argitaratu da, euskaraz.

*• Se ha realizado la nueva publicación digital de EAS, en euskera.*

• Europako proiektuari dagokionez, INTERREG-POCTEFA dirulaguntzen 2017 epealdiaren ordainketari dagokion kudeaketa egin da.

*• Respecto al proyecto europeo, se ha realizado la gestión correspondiente al pago del periodo 2017 de las subvenciones INTERREG-POCTEFA.*

• 2000. urtetik EAEn euskararen arloan egindako azterketak biltzen dituen direktorioa egin da.

*• Se ha realizado un directorio que recoge los estudios elaborados en el ámbito del euskera desde el año 2000 en la CAV.*

1.1. Batzorde Sustatzaileak bilera bat egin du.

*1.1. La Comisión Promotora ha realizado una reunión.*

1.2. Jarraipen Batzordeak 4 bilera egin ditu.

*1.2. La Comisión de Seguimiento ha realizado 4 reuniones.*

1.3. Talde berezituek 7 bilera egin dituzte.

*1.3. Las comisiones especiales han realizado 7 reuniones.*

1.4. Talde motorrak 7 bilera egin ditu.

*1.4. El Grupo Motor ha realizado 7 reuniones.*

2. Euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreetan sakontzeko faktoreak aztertu dira:

*2. Se han realizado estudios para profundizar en el conocimiento de los factores que inciden en el uso del euskera:*

2.1. "HUHEZIko Hizkuntza Tutoretza programaren ebaluazioa: ikasleen eta tutoreen begirada” izeneko ikerketa-egitasmoa garatu da (HUHEZIri dirulaguntza zuzena).

*2.1. Se ha desarrollado el estudio “Evaluación del programa Hizkuntza Tutoretza-Tutoría Lingüística de HUHEZI: el punto de vista del alumnado y de los tutores y tutoras” (subvención directa a HUHEZI).*

Hizkuntza gutxituak dituzten gizarteetan eleaniztasuna sustatzeko proiektua garatu da (UNESCO KATEDRAri dirulaguntza izenduna).

*Se ha desarrollado el proyecto de promoción del plurilingüismo en las sociedades con lenguas minoritarias (subvención nominativa a la CÁTEDRA UNESCO).*

Irakasleen prestakuntza diseinatzea Europako hizkuntza gutxituetako ahozko erabilerak irakasteko ikerketa garatu da (UNESCO KATEDRArekin kontratua).

*Se ha desarrollado un estudio para diseñar la formación del profesorado para la enseñanza de los usos orales en las lenguas minoritarias europeas (contrato con la CÁTEDRA UNESCO).*

2.2. “Hizkuntza-ohiturak aldatzen: Bilbo Handiko gazteen kasua” izeneko ikerketa-egitasmoa garatu da (Deustuko Unibertsitateari dirulaguntza zuzena).

*2.2. Se ha desarrollado el estudio “Cambio de los hábitos lingüísticos: el caso de los y las jóvenes del Gran Bilbao” (subvención directa a la Universidad de Deusto).*

2.3. Familia bidezko transmisioari buruzko ikerketa kualitatiboa egin da.

*2.3. Se ha realizado el estudio cualitativo sobre la transmisión familiar del euskera.*

2.4. EUSKARALDIAren azterketaren emaitzak aurkeztu eta argitaratu dira.

*2.4. Se han presentado y publicado los resultados del estudio sobre EUSKARALDIA.*

2.5. Hizkuntza eta genero berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko beka-deialdia egin da: BERDINTZEN 2019-2020.

*2.5. Se ha realizado una convocatoria de becas destinadas al desarrollo de trabajos de investigación en materia de lengua e igualdad de género: BERDINTZEN 2019-2020.*

2.6. Arnasguneetako egoera ezagutzeko hainbat ikerketa burutu dira (UEMAri dirulaguntza zuzena).

*2.6. Se han realizado diversos estudios sobre la situación en los municipios euskaldunes (subvención directa a UEMA).*

3. VI. Inkesta Soziolinguistikoa argitaratu da.

*3. Se ha publicado la VI Encuesta Sociolingüística.*

4. VI. Mapa Soziolinguistikoa lantzeko datuak egituratu eta ustiatzeko prest utzi dira.

*4. Se han estructurado y preparado para su explotación los datos para la elaboración del VI Mapa Sociolingüístico.*

5. EASen aplikazio informatikoaren diseinu berria egin da: fitxa teknikoen eredua diseinatu, idatzi eta aplikazioan txertatu dira.

*5. Se ha realizado el nuevo diseño de la aplicación informática de EAS: se ha diseñado el modelo de las fichas técnicas, se han redactado y se han subido a la aplicación.*

6. Euskararen azpiegituren datu-basea eguneratu da. Urtean zehar hiru eguneraketa egin dira, urtearen hasieran lehena, irailean bigarrena eta urtearen amaieran hirugarrena.

*6. Se ha actualizado la base de datos de las infraestructuras del euskera, la primera a comienzos de año, la segunda en septiembre y la tercera a finales de año.*

7. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen estatistika eguneratu da. Eguneraketa EASen egin da, eta EAEko datuez gain Nafarroakoak eta Iparraldekoak ere eguneratu dira.

*7. Se ha actualizado la estadística sobre la euskaldunización de personas adultas. La actualización se ha llevado a cabo en EAS, y además de los datos de la CAE, se han actualizado los de Navarra e Iparralde.*

8. Herri-langileen euskara mailari buruzko estatistika eguneratu da. Eguneraketa EASen egin da.

*8. Se ha actualizado la estadística relativa al nivel de euskera de los empleados públicos y las empleadas públicas. La actualización se ha llevado a cabo en EAS.*

9. EASen, kirolari buruzko adierazleak eratzeko, hiru foru aldundietako kirol teknikariak parte hartzen ari dira lantaldean. Halaber, foru aldundi bakoitzak eskola kirola kudeatzeko duen aplikazio informatikoan egokitzapenak egiten ari dira adierazleak elikatzeko datuak eskuratzeko.

*9. Para la elaboración de indicadores deportivos en EAS, se ha incorporado al grupo de trabajo personal técnico deportivo de las tres diputaciones forales. Asimismo, se están realizando adaptaciones en la aplicación informática de gestión del deporte escolar de cada diputación foral para la obtención de datos para la alimentación de los indicadores.*

**5. HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BABESTEA**

***5. PROTEGER LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS***

1. Herritarren Hizkuntza Eskubideak Babesteko Zerbitzu Publikoaren (ELEBIDE) gizarte-eragina zabaltzeko bi kanpaina egin dira: bata Facebook eta Twitterren bitartez (urte osoan zehar) eta bestea irrati kuñak erabiliz (abenduan). Horri esker, intzidentzia kopurua azken hilabetean handitu egin da.

*1. Se han realizado dos campañas de difusión del impacto social del Servicio Público de Protección de los Derechos Lingüísticos de la Ciudadanía (ELEBIDE): una a través de Facebook y Twitter (durante todo el año) y otra utilizando cuñas de radio (diciembre). Esto ha permitido que el número de incidencias haya aumentado en el último mes.*

2. Zerbitzu publikoetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko asmoz kanpaina bat diseinatu eta burutu da honako osagaiak dituena: alde batetik triptiko bat diseinatu da sektore publikoko erakundeen egoitzetako harrera guneetan jartzeko. Bertan azaltzen da herritarrek euskaraz artatuak izateko eskubideak dituztela eta non izan behar diren artatuak eurek hautatutako hizkuntzan. Horrez gain, leku berean jartzeko kartel bat diseinatu da, handiagoa. Bi hauek formatu elektronikoan erakunde guztiei bidali zaizkie, arreta berezia ipiniz osasun-, polizia- eta justizia-zerbitzuetan, baina sektore publikoko gainontzeko erakundeetan zabalduz. Gainera, diseinatutako kartela eta triptikoa paperan ere bidaliko zaizkie erakundeei. 2020ko urtarrilean egingo da honen zabalkundea.

*2. Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía en los servicios públicos, se ha diseñado y llevado a cabo una campaña que consta de los siguientes componentes: por un lado, se ha diseñado un tríptico para su colocación en las zonas de acogida de las sedes de las entidades del sector público. En él se explican los derechos de la ciudadanía a ser atendida en euskera y dónde deben ser atendidas en la lengua que elijan. Además, se ha diseñado un cartel para colocarlo en el mismo lugar, más grande. Ambas han sido remitidas en formato electrónico a todas las entidades, prestando especial atención a los servicios sanitarios, policiales y de justicia, pero extendiéndolas al resto de entidades del sector público. Además, el cartel y tríptico diseñado se enviarán a las instituciones en papel, cuya difusión se realizará en enero de 2020.*

3. ELEBIDEren eta Arartekoaren arteko lankidetzarekin jarraitzeaz gain, BEHATOKIArekin ere hainbat bilera egin dira eta elkarlanerako jardunbideak biltzen dituen dokumentu bat adostu da.

*3. Además de continuar con la colaboración entre ELEBIDE y el Ararteko, se han mantenido diversas reuniones con BEHATOKIA y se ha consensuado un documento que recoge las pautas de colaboración.*

**6. EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA GIZARTE-BIZITZAN ETA EUSKARAREN GARAPEN SOZIALEAN DIHARDUTEN ERAGILEEN LANA BULTZATZEA**

1. Euskararen erabilera soziala eta familia bidezkoa sustatzeko hainbat proiektu lagundu dira diruz.

1.1. Euskararen erabilera soziala eta familia bidezkoa sustatzeko egitasmoak garatzeko, bi dirulaguntza izendun eman dira: Soziolinguistika Klusterrari eta Galtzagorri Elkarteari.

Batetik, dirulaguntza izenduna eman zaio Soziolinguistika Klusterrari honako egitasmo hauek burutzeko:

- Hizkuntzen erabileraren neurketaren azterketa sakona. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak ikuspegi kuantitatibotik aztertu dira.
- Aldahitz egitasmoan, lanean jarraitu da “sistema integralaren” garapenean, aurreko urteetako hiru metodologiekin: hau da, Eusle metodologia, Ulerrizketa metodologia eta Uler-saioak metodologia.
- Jendaurrean Erabili ikerketa-egitasmoan, honako helburu zehatz hauek garatu dira: praktika komunitateko (PK) kideen arteko harremanak estutzea, erakunde parte hartzaileen praktiketan aldaketak eragitea, praktika komunitateko kide diren erakundeek beren ingurunean eragina sortzea (hedabideetan eta bestelako harremanetan), proiektuaren jarduna gizartean, eremu akademikoan eta jendaurreko komunikazioan diharduten erakundeen artean ezagutzera ematea.
- EraLan5eko aurreproiektua diseinatu da: lanketa teoriko-analitikoa, lanketa enpirikoa eta gida praktikoa sortzea, eta 2020an egingo den interbentzioa diseinatzea.

“Arnasa Gara” Kanpainaren barruan, fikziozko serie digital bat grabatu da: “KARTZELA”. Protagonistek beren euskalkietan hitz egiten duten aurreneko seriea izan da.

Bestetik, dirulaguntza izenduna eman zaio Galtzagorri Elkarteari, "Euskararen irakurzaletasuna sustatzeko lantegiak" jarduera gauzatzeko. Proiektu honen bidez, aholkularitza ematen zaie irakasleei, gazteen eta haurren irakurtzeko ohitura sustatzeko. Jardueraren eskaera kopurua ikusita, zuzkidura handitu egin da erakunde berari dirulaguntza zuzena emanez, eta horrela 100 saio bete dira EAEko hainbat ikastetxetan.

2. Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDEL) lankidetzan, udalerrietan ESEP diseinatu eta garapena bultzatu egin da. Horretarako EUDELi dirulaguntza zuzena eman zaio.

3. ESEP planak egiteko IRATI aplikazioa hobetzeko asmoa bertan behera gelditu da. ETEL Legeak udalei hizkuntza politikan eskumen osoa eman zien; horren ondorioz Eusko Jaurlaritzak ezin zituen diruz lagundu ESEP planak. Hortaz, HPSren dirulaguntza deialdia bertan behera geratu zen, eta, IRATI aplikazioa udal gehienek dirulaguntza deialdi horretarako erabiltzen zutenez, dirulaguntza desagertu

***6. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN LA SOCIEDAD E IMPULSAR LA LABOR DE LOS AGENTES QUE TRABAJAN EN EL DESARROLLO SOCIAL DEL EUSKERA.***

*1. Se han subvencionado varios proyectos para fomentar el uso social y familiar del euskera.*

*1.1. Para el desarrollo de los proyectos para fomentar el uso social y familiar del euskera se han concedido dos subvenciones nominativas: al Cluster de Sociolingüística y a Galtzagorri Elkartea.*

*Por una parte, mediante una subvención nominativa al Cluster de Sociolingüística, se han realizado los siguientes proyectos:*

- *Análisis exhaustivo de la medición del uso de las lenguas. Los factores relacionados con el uso del euskera se han analizado desde el punto de vista cuantitativo.*
- *En el proyecto Aldahitz se ha continuado trabajando en el desarrollo del "sistema integral" con las tres metodologías de años anteriores: la metodología Eusle, la metodología Ulerrizketa y la metodología Uler-saioak.*
- *En el proyecto Jendaurrean Erabili se han desarrollado los siguientes objetivos: estrechar las relaciones entre los miembros de la comunidad de prácticas (CP), provocar cambios en las prácticas de las entidades participantes, incidir en su entorno (en los medios de comunicación y en otras relaciones) por parte de las organizaciones que forman parte de la comunidad de prácticas, dar a conocer la actividad del proyecto entre las entidades implicadas en la sociedad, el ámbito académico y la comunicación pública.*
- *Se ha diseñado el anteproyecto EraLan5: elaboración teórico-analítica, empírica y guía práctica, y diseño de la intervención a realizar en 2020.*

*Dentro de la campaña "Arnasa Gara", se ha grabado una serie digital de ficción: "KARTZELA". Es la primera serie en la que los y las protagonistas hablan en sus dialectos.*

*Por otra parte, se ha otorgado una subvención nominativa a la Asociación Galtzagorri para llevar a cabo la actividad “Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko lantegiak”. Mediante el presente proyecto se presta asesoramiento al profesorado para promocionar el hábito de lectura de jóvenes y niños y niñas. Vista la demanda de la actividad se ha ampliado la dotación mediante una subvención directa a la misma entidad y así se han cubierto 100 sesiones en diferentes centros educativos de la CAE.*

*2. En colaboración con la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL), se ha impulsado el diseño y desarrollo del ESEP en los municipios. Para ello se ha concedido una subvención directa a EUDEL.*

*3. Se ha suspendido la idea de mejorar la aplicación IRATI para la elaboración de los planes ESEP. La LILE otorgó a los ayuntamientos competencia exclusiva en materia de política lingüística, por lo que el Gobierno Vasco no podía subvencionar los planes ESEP. Por lo tanto, la convocatoria de subvenciones de la VPL quedó suspendida, y como la mayoría de los ayuntamientos utilizaban la aplicación IRATI para esa convocatoria de subvenciones, dejaron de utilizarla*

zenezan aplikazioa erabiltzeari utzi zioten. Gaur egun, 30 bat erakundek erabiltzen dute.

*cuando desapareció la convocatoria. En la actualidad es utilizada por una treintena de entidades.*

4. Euskararen erabilera esparru ez-formaletan indartzeko ekimenak bideratzeari dagokionez, EUSKARABENTURA espedizioa-2019 egitasmoa diruz lagundu da. Egitasmoak Euskal Herri osoko 100 gazte bildu ditu uztailean eta euskararen erabilera sustatzeaz gain, euskal gazteen sarea sortzea, Euskal Herriko kultura eta natura ondarea ezagutzea eta balore positiboak bultzatzea helburua izan du.

*4. En cuanto al desarrollo de iniciativas para aumentar el uso del euskera en ámbitos no formales, se ha subvencionado el proyecto EUSKARABENTURA expedizioa-2019. El proyecto ha reunido en julio a 100 jóvenes de toda Euskal Herria y además de fomentar el uso del euskera, ha tenido como objetivo crear una red de jóvenes vascos, conocer el patrimonio cultural y natural de Euskal Herria e impulsar valores positivos.*

5. Elebitasun pasiboari balioa emateko estrategiak lantzeari dagokionez, azterketa bat egin da Gipuzkoako Futbol klubetan, euskararen inguruan dituzten iritzi eta beharrak zein diren ezagutzeko.

*5. En cuanto a elaborar estrategias para dar valor al bilingüismo pasivo, se ha realizado un estudio en los clubes de fútbol de Gipuzkoa para conocer sus opiniones y necesidades en torno al euskera.*

6. Topagunea Elkarteari dirulaguntza izenduna esleitu zaio (Euskara Elkarteen Federazioa): Auzoko egitasmoa ere egonkortu da aurten. Euskaratik urrun dauden pertsonak euskarara hurbiltzeko egitasmoa da Auzoko.

*6. Se ha concedido subvención nominativa a la Asociación Topagunea (Federación de Asociaciones del Euskera), al objeto de dar continuidad al programa Auzoko, cuyo objetivo es acercar al euskera a las personas lejanas a la lengua.*

Horrez gain, dirulaguntza izenduna esleitu zaio Topaguneari (Euskara Elkarteen Federazioa), Mintzalaguna egitasmoa (euskaraz hitz egiteko guneak) hedatzeko eta dauden “mintzalagunak” izeneko guneak sendotzeko eta jarraipena emateko.

*Además, se ha concedido subvención nominativa a Topagunea (Federación de Asociaciones del Euskera), al objeto de extender el programa Mintzalaguna (espacios para hablar en euskera) y realizar el seguimiento y afianzamiento de los espacios “mintzalagunak” en marcha.*

7. ONCE erakundeari dirulaguntza izenduna esleitu zaio.

*7. Se ha concedido una subvención nominativa a la ONCE.*

7.1. Itsuentzat 55 euskarazko literatura-lan Braillez eta 47 Daisy formatuan jarri dira.

*7.1. Se han puesto en sistema Braille 55 obras literarias en euskera y en Daisy 47.*

8. EUSKALGINTZA deialdia. Gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak: aisialdia, harreman sareak, erdal munduaren hurbilketa, euskararen ondarea, jardunaldiak, omenaldi esanguratsuak, familia bidezko transmisioa, irakurzaletasuna, etorkinak, kalitatezko ekarpenak, eta abar.

*8. Convocatoria EUSKALGINTZA. Estas subvenciones están dirigidas a la promoción, difusión y/o normalización del euskera en los diferentes ámbitos de la vida social: ocio, acercamiento del mundo no vascohablante al euskera, patrimonio del euskera, jornadas, homenajes significativos, transmisión familiar, fomento de la lectura, inmigrantes, aportaciones de calidad, etc.*

8.1. 164 egitasmo aurkeztu dira eta horietatik 116 diruz lagundu dira.

*8.1. Se presentaron 164 proyectos, de los cuales se han subvencionado 116.*

9. Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko estrategiak abian jartzea helburu zuten "Mingaina Dantzan!" udalekuak bi udatan antolatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako udaleku arruntetara eraman da ekimena, eta horien jarraipena egin da.

*9. Tras la organización durante dos veranos de los campamentos “Mingaina Dantzan!”, cuyo objeto era poner en marcha estrategias para el fomento del uso del euskera entre jóvenes, se ha trasladado la iniciativa a los campamentos ordinarios organizados por la Diputación Foral de Gipuzkoa y se ha hecho seguimiento de los mismos.*

10. “Euskal Kirolari” egitasmoari jarraipena eman zaio.

*10. Se le ha dado continuidad al proyecto “Euskal Kirolari”.*

**7. HELDUEN IKASKUNTZA-EGITASMOA SENDOTZEA**

***7. FORTALECER EL PROYECTO DE APRENDIZAJE DEL EUSKERA DE PERSONAS ADULTAS***

1. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) inplementatzen jarraitu da hainbat arlotan, ebaluazioan, material curricularraz izaera desberdineko euskarriak sortuz (testu-ereduak, dokumentu osagarriak…) eta landuz, eta abar.

*1. Se ha seguido implementando en distintos ámbitos el Currículo Básico para la Euskaldunización de Adultos (HEOC), en evaluación, mediante la elaboración de material curricular (textos prototípicos, documentos complementarios…), etc.*

1.1 Euskaltegiei, beren curriculum proiektua ebaluatu ondoren, eguneratzeko aholkularitza-zerbitzu teknikoa eskaini zaie.

*1.1. Tras la evaluación de su proyecto curricular de centro, se ha ofrecido a los euskaltegis un servicio de asesoría técnica para la actualización del mismo.*

1.2 HEOCaren B2 mailarako lehen (B2.1) eskuliburu didaktikoa sortu, argitaratu eta merkaturatu da.

*1.2. Se ha realizado el proceso de creación, publicación y comercialización del primer (B2.1) manual didáctico para el nivel B2 del HEOC.*

1.3 HEOCean oinarritutako Bagoaz B1 egitasmoaren gida-didaktikoa argitaratu da irakasleen erabilerarako.

*1.3. Se ha publicado la guía didáctica de la serie Bagoaz B1 para profesores, basada en el HEOC.*

1.4. HABEren mailak egiaztatzeko deialdiak gauzatu dira: euskaltegietako ikasleentzat B2, C1 eta C2 mailatan 13.361 azterketarik hartu du parte. Deialdi irekian berriz 3.728 izan dira.

*1.4. Se han realizado las convocatorias de acreditación de los niveles de HABE: en los niveles B2, C1 y C2 para el alumnado de los euskaltegis han participado 13.361 examinados. En la convocatoria abierta han sido 3.728.*

2. Udal Euskaltegien eta Euskaltegi Pribatu Homologatuen jarduerarako laguntza deialdiak eta euskaltegietako ikasleentzako dirulaguntza indibidualen deialdia burutu dira.

*2. Se han materializado las convocatorias de ayudas para la actividad de los Euskaltegis Municipales y Euskaltegis Privados Homologados y la convocatoria de ayudas individuales a los alumnos y las alumnas de los euskaltegis.*

2.1. Udal euskaltegientzat dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu egin da. Guztira 39 EAEko udal euskaltegi izan dira onuradunak.

*2.1. Se ha regulado y resuelto la convocatoria de ayudas a euskaltegis públicos. En total los beneficiarios han sido 39 euskaltegis municipales de la CAE.*

Euskaltegi pribatu eta autoikaskuntzarako zentroentzat dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu egin da. Guztira 57 euskaltegi pribatu eta 6 autoikaskuntzarako zentro izan dira onuradunak.

*Se ha regulado y resuelto la convocatoria de ayudas a euskaltegis privados y centros de autoaprendizaje. En total los beneficiarios han sido 57 euskaltegis privados y 6 centros de autoaprendizaje.*

2.2. Helduen euskara-irakaskuntzarako kurrikulumak finkatutako mailaren bat, edo baliokidea, gainditzen duten ikasleentzako 2019. ekitaldiko dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu egin da. Guztira 4.683 ikasle izan dira onuradunak.

*2.2. Se ha regulado y resuelto la convocatoria de ayudas del ejercicio 2019 a alumnos que superen alguno de los niveles del currículo de enseñanza del euskera a adultos, o equivalente. En total los beneficiarios han sido 4.683 alumnos.*

**8. ALOR SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA**

***8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO SOCIOECONÓMICO***

1. “EAEko Eremu Sozioekonomikoko Euskararen Plana 2020-23” izeneko plana garatu da. Horretarako, 2018an landutakoaz gain, eremu sozioekonomikoaren egoeraren diagnostiko sakon bat egin da (kontratu txikia) eta Aurrerabideren metodologiaren araberako plana aurkeztu zaio abenduan Gobernu Kontseiluari. Aurkeztu aurretik, hainbat eragilerekin kontrastatu da, denon inplikazioa lortzeko asmoz.

*1. Se ha desarrollado el “Plan de Euskera para el ámbito socioeconómico de la CAE 2020-23”. A tal fin se ha elaborado un profundo diagnóstico de la situación del ámbito socioeconómico (contrato menor) que, junto con los trabajos previos de 2018 y adaptado a la metodología de Aurrerabide, han servido de base al plan que se ha presentado en diciembre a Consejo de Gobierno. Previamente se ha contrastado con diversos agentes, a fin de conseguir la implicación de todos.*

2. LanHitz programaren markoan, lantokietako euskara-planak diruz laguntzeko deialdia argitaratu da irailaren 3ko EHAAn (166. zk.): AGINDUA, 2019ko uztailaren 17koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baitira EAEko sektore pribatuan dauden lantokietan 2019an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko dirulaguntzak (LanHitz).

*2. En el marco del programa LanHitz, la convocatoria para la subvención destinada a la promoción del uso del euskera en los centros de trabajo, se ha publicado el 3 de septiembre en el BOPV (n. 166); ORDEN de 17 de julio de 2019, del consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula y convoca la concesión de subvenciones para fomentar el uso y la presencia del euskera en los centros de trabajo del sector privado ubicados en la CAE, durante el año 2019 (LanHitz).*

2.1. Emandako dirulaguntza kopuruari dagokionez, deialdian 132 eskaera jaso dira eta denak diruz lagundu dira. Esleitutako dirua, guztira 1.850.000 euro izan da.

*2.1. En cuanto al número de subvenciones concedidas, en la convocatoria se han recibido 132 solicitudes y todas ellas han recibido subvención. Se han adjudicado en total 1.850.000 euros.*

3. Euskara kalitatearekin eta bikaintasunarekin lotzen duen BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiri ofiziala hedatzeko lanekin jarraitu da.

*3. Se ha continuado con la difusión del certificado oficial BIKAIN que vincula al euskera con la calidad y la excelencia.*

• Ebaluatzaileen kluba dela eta, 59 ebaluatzaile berrik jaso dute horretarako prestakuntza eta, guztira, 122 aritu dira ebaluatzaile 2019an. Guztira, 700 inguru daude orain klubean.

*• Por lo que respecta al club de personas evaluadoras, 59 personas más han recibido formación y un total de 122 han evaluado en 2019. En la actualidad hay unas 700 en el club.*

• Bikain ziurtagiria eskuratzera bultzatzeko ahalegina egin da Artezkaritza Kontseiluaren bidez eta 2019an 8k eskuratu dute ziurtagiria. Gainera, hamar urteko bidea egin ondoren, Bikain ziurtagiriaren inguruko iritziak jasotze aldera, bi inkesta egin dira: bata, Bikain ziurtagiria lortu duten entitate guztien artean; eta bestea, oraindik lortu ez duten erakunde publiko eta pribatu askoren artean. Lehenengoan 104 erantzun jaso dira eta bigarrenean, 317.

*• Se ha realizado un esfuerzo, a través del Consejo Rector, por impulsar a las administraciones públicas a obtener el certificado Bikain y en 2019 lo han conseguido 8. Además, tras diez años de experiencia y a fin de recabar opiniones acerca del certificado Bikain, se han realizado dos encuestas: una, entre las entidades que lo han acreditado; la otra, entre entidades públicas y privadas que aún no lo han hecho. Han respondido 104 a la primera y 317 a la segunda.*

• BIKAIN ziurtagiria eskuratu nahi duten erakundeen kanpo-ebaluazio prozesuan laguntzeko eta aholkularitza emateko, urte anitzeko kontratua bideratu da, 2019-21 urteetarako eta beste bi urtetarako luzatzeko aukera ere aurreikusi da (K-02/2019).

*• Se ha tramitado un contrato plurianual para el periodo 2019-21, prorrogable por otros dos años (K-02/2019), para colaborar y asesorar en el proceso de evaluación externa de las empresas que quieren obtener el certificado BIKAIN.*

• BIKAIN ziurtagiriak eskuratzeko bi ebaluazio-prozesu egin dira, BIKAIN dekretu berriaren arabera. Guztira 33 erakunde ebaluatu dira (8.833 langile).

*• Se han realizado dos procesos de evaluación para conceder el certificado BIKAIN con arreglo al nuevo decreto BIKAIN. Se han evaluado un total de 33 entidades (8.833 trabajadores y trabajadoras).*

• BIKAIN aplikazio berria 2018an probatu zen lehen aldiz, baina 2019ko bi prozesuetan erabili da eta beharrezkoak diren egokitzapenak egiten joan da.

*• La nueva aplicación BIKAIN se probó en 2018 y se ha utilizado en los dos procesos de 2019 y se están realizando las adaptaciones pertinentes.*

• BIKAIN ziurtagiriak banatzeko ekitaldi publikoa abenduaren 11n egin da Donostiako Kursaal Jauregian. 250 gonbidatu izan dira ekitaldian. Ekitaldia antolatzeko enpresa bat kontratatu da (K-17/2019).

*• El día 11 de diciembre se ha celebrado un acto público para conceder los certificados BIKAIN, en el Palacio Kursaal de Donostia. Han acudido 250 personas al evento. Se ha contratado una empresa para su organización (K-17/2019).*

3.1. Emandako ziurtagirien kopuruari dagokionez, guztira 25 ziurtagiri eman dira 2019ko bi ebaluazio-aldien artean.

*3.1. En cuanto al número de certificados emitidos, se han repartido 25 certificados entre los dos procesos de evaluación de 2019.*

4. Euskara lan munduan sustatzeko 2018an abiatutako programari jarraipena eman zaio: Errota Fundazioak egindako “Arratian euskararen garapena lan-munduan” izeneko proiektua, 2018ko dirulaguntza zuzenaren bidez. Beste hainbat ikerketa-lan ere jarri dira abian edo jarraipena eman zaie: “Lan munduko euskara-planen transmisioa aztertzeko lanak” (K-23/2018); eta “Lan-munduko enpresa eta erakundeen idatzizko hizkuntzen neurketa-metodologia berria eta hori gauzatzeko garapen teknologiaren aurrelanak” (kontratu txikia). Besteren bat abian jartzeko aurrelanak 2018an egin ziren eta 2019an abiarazi dira: “Teknologia aurreratua duten enpresetan hizkuntza kudeaketaren gaineko diskurtso berria aztertu eta zabaltzeko lanak egiteko proposamena” (K05/2019); “Hizkuntzen kudeaketa Kudeaketa Aurreratuaren ereduaren ikuspegitik: integraziorako gida” (kontratu txikia); “Hezi eta Lan (7 esperientzia)” (kontratu txikia; eta “Hizkuntza portaeretan eragiteko planak” (kontratu txikia).

*4. Se ha dado continuidad a un programa destinado a impulsar el euskera en el mundo laboral, promovido en 2018 mediante subvención directa: “Desarrollo del euskera en el ámbito laboral en Arratia”, realizado por Errota Fundazioa. Asimismo, se han puesto en marcha varios proyectos de investigación y se ha dado continuidad a otros: “Trabajos para el estudio de la transmisión en los planes de euskera en el ámbito laboral” (K-23/2018); y “Trabajos previos para una nueva metodología de medición de la lengua escrita en empresas y entidades del ámbito laboral y el desarrollo tecnológico de su implantación (contrato menor). En 2018 se realizaron trabajos previos para otros y se han puesto en marcha en 2019: “Propuesta de estudio y difusión del nuevo discurso sobre gestión lingüística en empresas con tecnología avanzada (K-05-2019); “La gestión lingüística desde el punto de vista de la Gestión Avanzada: guía para la integración” (contrato menor); "Hezi eta Lan (7 experiencias)" (contrato menor); y “Planes de incidencia en los comportamientos lingüísticos” (contrato menor).*

5. EUSLAN programan landutako hainbat gai lantzen jarraitzeko, SPRI eta EEErekin elkarlanean lau lantalde dira abian. Proiektuari INDEUS Industriaren Euskal Plataforma izena eman zaio. EUSLAN programan parte hartu duten enpresetako ordezkariak ere partaide dira eta, gainera, traktore-lana egin dezaketen enpresa handiak ere euskararen erabileraren normalizaziora erakartzeko lanean ari da INDEUS plataforma.

*5. A fin de continuar trabajando alguno de los temas tratados en el programa EUSLAN, se han puesto en marcha cuatro grupos de trabajo, en colaboración con SPRI y EVE. Al proyecto se le ha puesto el nombre de INDEUS Industriaren Euskal Plataforma. También participan representantes de empresas que participaron en EUSLAN y la plataforma INDEUS está intentando atraer a la normalización del uso del euskera a grandes empresas que puedan ser tractoras.*

Bestalde, UNErekin 2017an sinatutako hitzarmenaren ondorioz euskaratutako bi ISO arauren argitalpen berezia egin da (kontratu txikia UNErekin) eta argitalpen horren zabalkundea ere egin da.

6. Merkataritza eta finantza entitateen esparruan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta sustapenerako neurriak eraginkorragoak izan daitezkeelakoan, "EAEko Eremu Sozioekonomikoko Euskararen Plana 2020-23" izeneko plana abenduan Gobernu Kontseiluari aurkeztu aurretik, hainbat eragilerekin kontrastatu da, denon inplikazioa lortzeko asmoz, besteak beste, HPSrekin hitzarmena sinatu zuten merkataritza eta finantza-entitateekin.

*Por otro lado, se ha realizado una publicación especial con dos de las normas ISO traducidas al euskera gracias al convenio firmado en 2017 con UNE y se ha procedido a la difusión de dicha publicación.*

*6. Confiando en que las medidas de fomento del euskera y para garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía en el ámbito del comercio y de las entidades financieras así pueden ser más efectivas, antes de presentar el "Plan de Euskera para el ámbito socioeconómico de la CAE 2020-23" en diciembre a Consejo de Gobierno, se ha contrastado con diversos agentes, a fin de conseguir la implicación de todos, entre ellos, con las entidades comerciales y financieras que tienen firmado convenio con la VPL.*

## 9. EUSKARA HEDABIDEETAN

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien arteko hitzarmena sinatu da. Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak bere 5. artikuluan herritarrei aitortzen zaien eskubidea (aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidearena) gauzatzeko helburua du hitzarmenak.

2. EUSKARAZKO HEDABIDEAK deialdia (2019-2022): Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak 2019-2021 epealdian emateko deialdia bideratu da.

Era berean, EUSKARA GAZTELANIAZKO HEDABIDEETAN deialdia (2019-2020): nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan (eguneroko prentsan eta uhin bidezko irratietan) eta Internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan euskararen erabilera areagotzeko dirulaguntzak emateko deialdia bideratu da.

2.1. EUSKARAZKO HEDABIDEAK deialdian 63 egitasmo aurkeztu dira eta 60 diruz lagunduak izan dira. EUSKARA GAZTELANIAZKO HEDABIDEETAN deialdian 13 egitasmo aurkeztu dira eta horietatik 11 diruz lagundu dira.

3. BERRIA hitzarmena (2019-2021). Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) eta EUSKAL EDITOREA, S.L. entitatearen arteko hitzarmena sinatu da. Hitzarmen honen xedea, BERRIA egunkariaren aurreranzko ekintzabidea ziurtatzeko alde desberdinek bere gain hartzen dituzten betebeharrak, diruzkoak zein baliabidezkoak, arautzea da.

Horrez gain, TOKIKOM S.L. entitateari, (Euskarazko toki-komunikabideen sarea) dirulaguntza eman zaio, bere jarduera finantzatzeko.

4. Distribuidora de Televisión Digital S.A. (DTS) enpresari emandako dirulaguntza izendun baten bidez, Canal + plataformaren fikzio-estreinaldietan euskarazko azpitituluak jarriko dira.

## *9. EL EUSKERA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN*

*1. Se ha firmado el convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Gobierno Vasco) y las diputaciones forales de Araba/Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, con el fin de materializar el derecho de la ciudadanía a recibir en euskera publicaciones periódicas, programaciones de radio y televisión y de otros medios de comunicación, reconocido en el artículo 5 de la Ley 10/1982, básica de normalización del uso del Euskera.*

*2. Convocatoria MEDIOS DE COMUNICACIÓN EN EUSKERA (2019-2022): se ha llevado a cabo la convocatoria de subvenciones para la consolidación, eficiencia, desarrollo y normalización de los medios de comunicación en euskera en el periodo 2019-2021.*

*En cuanto a la convocatoria EUSKERA EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN EN CASTELLLANO (2019-2020): se ha llevado a cabo la convocatoria de subvenciones destinadas a incrementar la presencia del euskera en los medios de comunicación que utilizan principalmente el castellano (diarios y radios de onda) y en las agencias de noticias que también difunden noticias en euskera a través de internet.*

*2.1. En la convocatoria MEDIOS DE COMUNICACIÓN EN EUSKERA se han presentado 63 proyectos y se han subvencionado 60. En la convocatoria EUSKERA EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN EN CASTELLLANO se han presentado un total de 13 proyectos y se han subvencionado 11.*

*3. Convenio BERRIA (2019-2021). Firma del convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Gobierno Vasco) y la entidad EUSKAL EDITOREA, S.L. para la regulación de las obligaciones tanto económicas como materiales que asumen las diferentes partes, con el fin de asegurar la línea de acción futura del periódico Berria.*

*Además, se ha concedido una subvención a TOKIKOM, S.L. (Red de medios de comunicación locales en euskera), para financiar su actividad.*

*4. Mediante una subvención nominativa a la empresa Distribuidora de Televisión Digital S.A. (DTS), se subtitularán en euskera los estrenos de ficción de la plataforma Canal +.*

4.1 Azpititulatutako film kopurua: 145 eta serie kopurua: 300 kapitulu.

*4.1 Número de películas subtituladas: 145 y series subtituladas: 300 capítulos.*

**10. EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN**

***10. EL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL***

1. Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezian hainbat lan bideratu dira Ingurune Digitalean euskara sustatzeko Plana diseinatzeko eta garatzeko; besteak beste, "Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat" izeneko dokumentua eguneratuko duen bide-orri berria diseinatzeko lan-ildoak proposatu eta onartu dira. Horrekin batera, HPSk Hizkuntza Teknologia Planari buruzko Txostenaren lanketari ekin dio. Bi lan-lerro horiek izango dira Ingurune Digitalean euskara sustatzeko Planaren oinarri.

*1. La Comisión Especial para Fomentar el euskera en el Entorno Digital del Consejo Asesor del euskera ha realizado varios trabajos encaminados al diseño y desarrollo del Plan para fomentar el uso del euskera en el Entorno Digital; entre otros puntos, se han iniciado los trabajos para la realización de una nueva hoja de ruta que actualizará el documento "Las TIC en euskera: recomendaciones para los poderes públicos". Además, la VPL ha puesto en marcha la realización del Informe sobre el Plan de Tecnología Lingüística. Esas dos líneas de trabajo serán la base del Plan para fomentar el uso del euskera en el Entorno Digital.*

2. Euskara Ingurune Digitalean deialdiaren bitartez, ingurune digitalean euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko dirulaguntzak banatu dira. 94 eskabide jaso dira, eta horietatik 43 egitasmo diruz lagundu dira, guztiak ere Interneten edukiak euskaraz garatzeko.

*2. A través de la convocatoria euskera en el Entorno Digital se han adjudicado las ayudas dirigidas a la promoción, difusión y/o normalización del euskera en el entorno digital. Se han recibido 94 solicitudes, de las que se han ayudado 43 proyectos, todos ellos destinados a la difusión de contenidos en euskera en Internet.*

3. Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziaren bidez IKTen behaketa jarraitua egiten jarraitu da, eta horretarako hainbat eragile gonbidatu dira: EITB, Game Erauntsia, 2deo, IXA Taldea (EHU), Kultura Sailburuordetza…

*3. A través de la Comisión Especial para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital del Consejo Asesor del Euskera, se ha seguido realizando una observación continua de las TIC, invitando para ello a diferentes entidades o personas expertas: EITB, Game Erauntsia, 2deo, IXA Taldea (UPV), Viceconsejería de Cultura…*

4. www.euskadi.eus/euskara webgunean Euskara ingurune digitalean sustatzeko deialdiaren bidez diruz lagunduko egitasmoen inguruko informazioa eguneratzen eta zabaltzen jarraitu da.

*4. En la página www.euskadi.eus/euskara se ha seguido actualizando el inventario de los proyectos subvencionados a través de la convocatoria destinada a promover el uso del euskera en las TIC.*

Horrez gain, hainbat kontratu bideratu dira euskarazko aplikazio, erreminta eta softwarea erabiltzaileengana hurbiltzeko. Horrela, batetik, Game Erauntsia Elkarteak euskarazko bideo-jokogintzaren inguruko azterketa egin du eta alor horretan euskara sustatzeko plangintzaren nondik norakoak aztertu ditu; bestetik, AZPIKARI SL enpresak "XARE 2019, EUSKARAZKO KULTURA DIGITALA SUSTATZEKO JARDUNALDIAK" burutu ditu EAEko hiru lurraldeetan (Durangon, Gasteizen eta Donostian), EAEko beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean; eta azkenik, AZK enpresak arlo digitalerako erabilgarri dauden euskarazko produktuak ezagutarazteko ekintzei buruzko txostena egin du, eta bertan jasotako proposamen batzuk gauzatuko dira 2020an.

*Además, se han realizado varios contratos a fin de acercar a las personas usuarias las aplicaciones, herramientas y software disponibles en euskera. Así, por una parte, la Asociación Game Erauntsia ha realizado un estudio sobre los videojuegos en euskera y ha analizado los posibles puntos para planificar el fomento del euskera en este ámbito; por otra parte, la empresa AZPIKARI SL ha realizado las jornadas "XARE 2019, JORNADAS PARA FOMENTAR LA CULTURA DIGITAL EN EUSKERA" en los tres territorios de la CAE (Durango, Vitoria-Gasteiz y Donostia-San Sebastián), en colaboración con otras entidades públicas de la CAE; y para finalizar, la empresa AZK ha realizado un informe sobre posibles acciones para difundir los productos disponibles en euskera en el mundo digital, algunas de las cuales se pondrán en marcha en 2020.*

5. Euskarazko Wikipedia sustatzeari dagokionez, bi urteko dirulaguntza bideratu zen 2018an Wikipedian gazteentzako artikuluak eskuragarri izateko asmoz. 2018an hasitako lanari 2019an jarraipena eman zaio.

*5. En cuanto al fomento de la Wikipedia en euskera, en 2018 se destinó una subvención de dos años para disponer de artículos para jóvenes en Wikipedia. El trabajo iniciado en 2018 se ha continuado en 2019.*

**11. EUSKARAREN CORPUSA GARATZEKO LANKIDETZA**

***11. COLABORAR EN EL DESARROLLO DEL CORPUS DEL EUSKERA***

1. UPV/EHU Euskara Institutuari urte anitzeko (2017-2019) dirulaguntza hiztegigintza, gramatikagintza eta terminologia jardunaldiak garatzeko.

*1. Subvención plurianual (2017-2019) al Instituto de Euskera de la UPV/EHU para la realización de trabajos de lexicografía, gramática y jornadas sobre terminología.*

2. Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta Euskaltzaindiak 2015-2018 eperako programa-kontratua sinatuta dute. 2019an bi dirulaguntza izendun jaso ditu Hizkuntza Akademiak: lehenengo dirulaguntza izendunaren bidez urteko lan-programak eta horiek gauzatu ahal izateko funtzionamendu gastuak ordaindu dira eta bigarren dirulaguntza izendunaren bidez, Oroitidazkiaren argitalpen elektronikoa eta zenbait lan informatiko. Horrez gain, 2019an dirulaguntza zuzena eman zaio programa-kontratutik kanpo zegoen egitasmoa garatzeko: Akademiaren mendeurrena ospatzeko ekintzak.

3. Labayru Fundazioari dirulaguntza izenduna eman zaio Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Labayru Fundazioaren artean 2016-2019 eperako sinatuta dagoen hitzarmenaren barruan, euskararen corpusaren inguruan lan egiten jarraitzeko. Lexikografia arloan bi egitasmo nagusi lantzen ari dira: Hiztegi fraseologikoa eta Labayru Hiztegia online. Horrez gain, sareko gramatika prestatzen ari dira.

4. Euskarazko terminologiaren alorrean lan hauek egin dira:

a) EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoan www.euskadi.eus/euskalterm Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak integratu dira: Zirkulazio Hiztegia (1.125 fitxa), Lorezaintza Hiztegia (350 fitxa), eta Banka eta Aurrezkia (360 fitxa). Gainera, Bankuaren Interneteko aplikazioa berritzeko lanak abian jarri dira (interfazea eta funtzionalitate berri batzuk).

b) Terminologia lanen jarduketa plana (Terminologia Batzordea) garatu da.

c) Bost hiztegiren argitalpena egin da, 2020 urtearen hasieran aurkeztu eta banatuko direnak: Hirigintza, Arkeologia, Erlezaintza, Lorezaintza eta Banka eta Aurrezkia.

5. www.euskadi.eus/tesiak helbidean dagoen euskarazko doktorego-tesien corpusa handitzen jarraitu da. 2019an 56 tesi berri jarri dira eskuragarri. Guztira, orain, corpus horretan 550 euskarazko doktorego-tesi kontsulta daitezke.

6. Toponimiari dagokionez, lan hauek egin dira:

a) EAEko toponimia datu-basea eta Izendegi Geografikoa zuzentzen eta eguneratzen jarraitu dugu. Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak diruz laguntzen dituen udal-mapetako toponimia gainbegiratu da. 2019an 19 udal mapa zuzendu dira. Datu horiekin zuzenketak eta eguneraketak egin dira Izendegi Geografikoan. Izendegi Geografikoaren aplikazioan hobekuntzak sartu dira.

EAEko Izendegi Geografikoa Internetez kontsultatzeko aukera martxan jarri da. www.euskadi.eus/izendegigeografikoa Aplikazioaren aurkezpena egin da Donostian hedabideen aurrean.

*2. El Gobierno Vasco, las diputaciones forales y Euskaltzaindia tienen suscrito un contrato-programa (2015-2018). En 2019 la Academia ha recibido dos ayudas nominativas; mediante la primera de ellas se han financiado los programas anuales y los gastos de funcionamiento derivados de ellos y mediante la segunda, la publicación electrónica Oroitidazkia y varios trabajos informáticos. Además, en 2019 se ha otorgado una subvención directa a Euskaltzaindia para que desarrolle un proyecto que no se incluye en el contrato-programa: la realización de los actos de conmemoración del centenario de la Academia.*

*3. Labayru Fundazioa ha recibido una subvención nominativa dentro del marco del convenio firmado entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y Labayru Fundazioa para el periodo 2016-2019, con el fin de que continúe trabajando en torno al corpus del euskera. En el ámbito de la lexicografía ha desarrollado dos proyectos principalmente: el Diccionario Fraseológico y el Diccionario Labayru on-line. Además, siguen trabajado en la elaboración de una gramática en la red.*

*4. En el ámbito de la terminología se han hecho estos trabajos:*

*a) Se han integrado en EUSKALTERM, el Banco Público de Terminología www.euskadi.eus/euskalterm, los siguientes diccionarios aprobados por la Comisión de Terminología: ‘Zirkulazioa’ (Circulación) 1.125 fichas, ‘Lorezaintza’ (Jardinería) 350 fichas, y ‘Banka eta Aurrezkia’ (Banca y Ahorro) 360 fichas. Además, se han iniciado trabajos para renovar la aplicación de Internet del Banco (interfaz y nuevas funcionalidades).*

*b) Se ha desarrollado el plan de actuación de los trabajos terminológicos (Comisión de Terminología).*

*c) Se han publicado cinco diccionarios terminológicos que se presentarán y distribuirán en 2020: Hirigintza (Urbanismo), Arkeologia (Arqueología), Erlezaintza (Apicultura), Lorezaintza (Jardinería) y Banka eta Aurrezkia (Banca y Ahorro).*

*5. Se ha continuado enriqueciendo el corpus de las tesis doctorales en euskera ubicadas en www.euskadi.eus/tesiak y, en 2019, se han añadido 56 tesis más. En total, ahora, se ofrece la consulta de 550 tesis doctorales escritas en euskera.*

*6. En cuanto a la Toponimia, se han realizado los siguientes trabajos:*

*a) Se ha continuado corrigiendo y actualizando la base de datos de toponimia de la CAE, así como el Nomenclátor Geográfico. Se ha revisado la toponimia de los mapas municipales que subvenciona el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda. En el año 2019 se han revisado 19 mapas municipales y, simultáneamente, se han actualizado los datos del Nomenclátor Geográfico. Se han introducido mejoras en el mismo.*

*Se ha puesto a disposición del público, en el portal www.euskadi.eus/nomenclator, la posibilidad de consultar por internet el Nomenclátor Geográfico de la CAE. Se presentó la aplicación en San Sebastián ante los medios de comunicación.*

b) EAEko biztanle-guneen izen ofizialen aldaketak sustatu dira behar zen kasuetan. Ondorioz, Arabako 4 administrazio batzarren eta herri baten izen ofizialak aldatzeko espedienteak burutu dira.

*b) Se ha impulsado la modificación de los nombres oficiales de aquellos núcleos de población de la CAE que lo requerían: se han tramitado los expedientes de cambio de nombre de 4 juntas administrativas alavesas y de una localidad alavesa.*

Horrez gain, toponimia zuzena hedatzeari bultzada eman zaio:

*Además, se ha fomentado el uso correcto de los topónimos a través de:*

- Aldatutako izen ofizialei zabalkundea eman zaie herri-administrazio ezberdinei, askotariko enpresei eta hainbat herritarri informazioa bidaliz.

*– La difusión de los nombres oficiales modificados mediante su notificación a diferentes administraciones, empresas y particulares.*

- Toponimiaren zabalkundean eragile garrantzitsuak direnek erabiltzen dituzten toponimoen jarraipena egin da, bereziki Interneten oso erabiliak diren tresnak aztertuz eta akatsak zuzenduz.

*- En la difusión de la toponimia, el seguimiento del uso de los topónimos por parte de los usuarios más importantes, analizando especialmente las herramientas más utilizadas en Internet y llevando a cabo correcciones.*

c) Toponimia-arloan lankidetza eta koordinazioa sustatu dira, bereziki, Euskaltzaindiarekin, Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurralde Politika Sailarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin. Horrez gain, lankidetza estua izan da IGNrekin.

*c) Se ha fomentado la colaboración y la coordinación en el ámbito de la toponimia, especialmente con la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, con el Departamento de Medioambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco y con la Diputación Foral de Bizkaia. Además, se ha trabajado en estrecha colaboración con el IGN.*

8. Itzultzaile neuronala garatu eta jarri da erabiltzaileen eskura www.euskadi.eus/itzuli. Gainera, aplikazio horren app-ak ere garatu dira Android eta iOS sistema eragiletarako.

*8. Se ha desarrollado y puesto a disposición de los usuarios el traductor neuronal www.euskadi.eus/itzuli. Además, se han creado las apps del traductor neuronal para los sistemas operativos Android e iOS.*

Bestalde, www.itzultzailea.euskadi.eus helbidean dagoen itzultzaile gramatikalaren eguneratze- eta mantentze-lan teknikoak eta linguistikoak egin dira. Gainera euskara>frantsesa norabidea garatu da.

*Por otra parte, se ha llevado a cabo el mantenimiento técnico y lingüístico y la actualización del traductor gramatical www.itzultzailea.euskadi.eus, para el que también se ha desarrollado la dirección francés>euskera.*

Horrez gain, UZEI entitateak dirulaguntza jaso du hainbat tresna eta corpus eguneratzeko eta kudeatzeko.

*Además, la entidad UZEI ha recibido una subvención para actualizar y gestionar algunas herramientas y corpus.*

9. 2018an aztertu ziren itzultzaile eta interpreteen habilitazioari buruzko 88/2009 Dekretua egokitzeko aukerak. 2019an Zinpeko itzultzaile nahiz interprete lanetarako habilitazioa lortzeko probetarako deialdia argitaratu da. Deialdia hizkuntza hauetarako bideratu da: euskara-gaztelania / gaztelania-euskara, euskara-ingelesa / ingelesa-euskara eta euskara-frantsesa / frantsesa-euskara.

*9. Las posibilidades de modificar el Decreto 88/2009 sobre la habilitación de traductores e intérpretes jurados se analizaron en 2018. En 2019 se ha publicado la convocatoria de las pruebas de habilitación de traductores e intérpretes jurados o traductoras e intérpretes juradas. Dicha convocatoria es para las siguientes lenguas: euskera-castellano / castellano-euskera, euskera-inglés / inglés-euskera y euskera-francés / francés-euskera.*

10. Eusko Ikaskuntzak 2018-2019rako jasotako dirulaguntza zuzenaren bidez, Bonaparte Ondarearen kodifikazio estandarrez testuen analisi morfo-sintaktikoari eta lexikoari dagokion erdiautomatikoa den tresna informatiko bat garatu da.

*10. Con la subvención directa recibida para 2018-2019, Eusko Ikaskuntza ha desarrollado una herramienta informática semiautomática de análisis morfo-sintáctico y léxico de textos con codificación estándar del Patrimonio Bonaparte.*

## 12. EAEz BESTEKO EUSKARAREN LURRALDEETAKO ERAGILE PUBLIKO ZEIN PRIBATUEKIN LANKIDETZA SUSTATZEA

## *12. FOMENTAR LA COLABORACIÓN CON AGENTES PÚBLICOS Y PRIVADOS DE LOS TERRITORIOS VASCOS AJENOS A LA CAE*

1. Eusko Jaurlaritzak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak 2017-2022 epealdirako hitzarmen markoaren urteko eranskina sinatu dute Baionan 2019ko apirilaren 3an. 2019ko eranskinaren bitartez, Ipar Euskal Herriko 9 eragile jakinentzat hitzarmen bidez diru-multzoa bideratu da batetik, eta bestetik, Iparraldeko beste hainbat eragilerentzako

*1. El Gobierno Vasco y el Organismo Público de la Lengua Vasca han firmado el anexo anual del convenio marco para el periodo 2017-2022 el 3 de abril de 2019 en Baiona. Mediante el anexo para el 2019, se han tramitado, por una parte, una partida presupuestaria por medio de un convenio dirigida a 9 agentes concretos, y, por otra parte, una convocatoria de ayudas dirigidas a otros agentes de*

dirulaguntza deialdia bideratu da. Deialdira 72 egitasmo aurkeztu dira, eta horietatik 52 diruz lagundu dira.

2. Eusko Jaurlaritzak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko Iruñean 2017ko uztailaren 3an sinatutako hitzarmenaren jarraipena egin da. Jarraipenerako bilerak egin dira eta lankidetzarekin jarraitu da, hainbat alorretan (EAS, Inkesta, Euskaraldia,…).

*Iparralde. En la convocatoria se han presentado un total de 72 proyectos, de los que han sido subvencionados 52.*

*2. Se ha realizado el seguimiento del Acuerdo firmado por el Gobierno Vasco, el Organismo Público de la Lengua Vasca y el Gobierno de Navarra el 3 de julio de 2017, en Iruña, para promocionar el euskera. Se han realizado diversas reuniones de seguimiento y se ha proseguido colaborando en diferentes proyectos (EAS, Encuesta, Euskaraldia,…).*

**13. EUSKARAREN UNIBERTSOA ETA BIZIPENA GIZARTE OSOAREN AURREAN DUINDU ETA PRESTIGIATZEA ETA EUSKARAREN KULTUR KONTSUMOA SUSTATZEA**

1. EITBrekin lankidetzan Eusko Jaurlaritzaren euskararen komunikazio ardatza eta euskararen erabilera soziala indartzeko ekimenak bideratu dira. Honako kanpainak bideratu dira:

- “Euskara: Bihotzetik ezpainetara” kanpaina. Bi fase: lehena uda aurretik eta bigarrena uda ostean.
- “Euskararen nazioarteko eguna” kanpaina. Azaroaren bukaeran.
- HABE matrikulazio kanpaina.

Lantzamendu kanpainetarako honako hauek diseinatu ziren: spotak, kuinak, bannerrak, prentsarako iragarkiak, sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram), micrositea eta biniloak.

2. "Euskararen Nazioarteko Eguna" ospatzeko abenduaren 3an egin zen ekitaldi instituzionala Bilboko EUSKALDUNA jauregian. Mezu nagusia: “bide berriak, modu berriak”. Euskararen inguruko eragileak gauzak egiteko modu berriak probatzen ari dira. Denbora batez, berriak probatzen ari dira. Denbora batez, plan edo ekintza antzekoak gauzatu ondoren, beste gauza batzuk probatzeko, esperimentatzeko eta saiatzeko aukerak ikusi dituzte, bai herri ekimenek eta bai herri-administrazioek ere. Ildo hori azpimarratu nahi izan da.

Adierazpen Instituzionala HAKOBAko kide guztiek sinatu zuten, hau da Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek, Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteizeko udalek, EUDELek eta UEMAk. Horren irakurketa publikoa 2018ko azaroaren 19an egin zen.

3. Euskararen erabilera eta sustapenarekin lotutako materialak argitaratu eta zabaltzeari dagokionez: 2018an Lasarte-Orian ere egin zen Euskaraldia. Nerabeei begirako ikerketa egin zen. Izan ere, EUSKARALDIAn parte hartzeko 16 urtetik gorakoa izatea zen baldintza bat. Euskaraldia nerabeei egokitzeko ahalegina egin zen eta udalerri horretako institutu batean proba pilotoa eta ikerketa egin zen. Orduan ateratako ondorioak, erabilitako estrategiak eta sortutako materiala 2019an argitaratu dira.

4. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari (EHBE) 2019. urtean dirulaguntza izenduna eman dio Eusko Jaurlaritzak elkartearen urteko lan-programak finantzatzeko

***13. DIGNIFICAR Y PRESTIGIAR EL UNIVERSO Y LA VIVENCIA DEL EUSKERA ANTE TODA LA SOCIEDAD Y FOMENTAR EL CONSUMO CULTURAL EN EUSKERA***

*1. En colaboración con EITB se ha desarrollado el eje comunicativo del euskera del Gobierno Vasco, así como acciones dirigidas a reforzar el uso social del euskera. Se han llevado a cabo las siguientes campañas:*

- *“Campaña “Euskara: Bihotzetik ezpainetara”. Dos fases: primera antes del verano y segunda después del verano.*
- *“Euskararen nazioarteko eguna”. Finales de noviembre.*
- *Campaña de matriculación HABE.*

*Para las campañas de lanzamiento se diseñaron spots, cuñas, banners, anuncios para prensa, redes sociales (Facebook, Twitter, Instagram), microsite y vinilos.*

*2. Para conmemorar el "Día Internacional del euskera", el día 3 de diciembre se organizó un acto institucional en el Palacio EUSKALDUNA de Bilbao. Mensaje principal: “bide berriak, modu berriak”. Los agentes en torno al euskera están probando nuevas formas de hacer las cosas. De un tiempo a esta parte se están probando las nuevas. Durante un tiempo, tras llevar a cabo similares planes o acciones, han visto posibilidades de probar, experimentar e intentar otras cosas, tanto por parte de iniciativas populares como por parte de las administraciones públicas. Se ha querido subrayar esta línea.*

*La Declaración Institucional la firmaron todas las instituciones que forman HAKOBA: Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, los ayuntamientos de Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz, EUDEL y UEMA. Se llevó a cabo la lectura pública de la misma el 19 de noviembre de 2018.*

*3. En cuanto a la publicación y difusión de materiales asociados con el uso y la promoción del euskera: en 2018 se celebró Euskaraldia también en Lasarte-Oria. Se realizó una investigación orientada a adolescentes. De hecho, uno de los requisitos para participar en EUSKARALDIA era ser mayor de 16 años. Se intentó adaptar Euskaraldia a los adolescentes y en un instituto de ese municipio se realizó una prueba piloto junto a un trabajo de investigación. Las conclusiones obtenidas, las estrategias utilizadas y el material generado se han publicado en 2019.*

*4. El Gobierno Vasco ha otorgado una subvención nominativa a Euskal Herriko Bertsozale Elkartea (EHBE), para la financiación de los programas que ha desarrollado*

(bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta bere etorkizuna bermatu).

*en 2019 (proteger, promocionar, investigar y garantizar el futuro del bertsolarismo).*

5. EIZIEri (Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Euskal Elkarteari) emandako dirulaguntza izendunaren barruan, 2019an jarraipena eman zaio orain arte egindako lanari, eta, funtsean, Literatura Unibertsala eta Urrezko Biblioteka bildumak kudeatu dira, aurreko urteetan ezarritako baldintzen arabera onartu zirenak.

*5. Dentro de la subvención nominativa concedida a EIZIE (Asociación Vasca de Traductores, Correctores e Intérpretes), en 2019 se ha dado continuidad al trabajo realizado hasta ahora, y básicamente se han gestionado las colecciones Literatura Unibertsala y Urrezko Biblioteka, que se aprobaron según los requisitos establecidos en años anteriores.*

2018an itzulpen lehiaketa publikoa egin zen. Horren ondorioz, lau lan esleitu ziren eta 2019an kaleratu dira. 2019an Urrezko Biblioteka bildumaren beste lan bat kaleratu da.

*En 2018 se llevó a cabo el concurso para la adjudicación de las obras a traducir; se seleccionaron cuatro obras, que han visto la luz en 2019. En 2019 se ha publicado una obra en la colección Urrezko Biblioteka.*

6. Hiztun berriak euskarara hurbiltzeko, bereziki, Auzoko programa eta Bidaide egitasmoa sustatu dira.

*6. Con el fin de acercar el euskera a nuevos y nuevas hablantes se han promovido los programas Auzoko y Bidaide.*

## 14. EUSKARAREN NAZIOARTEKO SUSTAPENA ETA ELEANIZTASUNAREN KUDEAKETAREN ALDEKO KONPROMISOA

## *14. PROMOCIÓN INTERNACIONAL DEL EUSKERA Y COMPROMISO POR LA GESTIÓN DEL PLURILINGÜISMO*

1. Hizkuntzei buruzko nazioarteko harremanei dagokienez, honako hauek egin dira:

*1. En cuanto a las relaciones internacionales sobre lenguas, se han llevado a cabo los siguientes trabajos:*

a) NPLD Network to Promote Linguistic Diversity (Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarea) Europako sarearen urteko bileretan parte hartu da, bai Zuzendaritza Batzordean (Steering Committee) bai Batzar Orokorrean (General Assembly). Horrez gain, urrian, Donostian, NPLD-Coppieters Campus 2019 antolatu dugu, gaia hauxe izan dela: "Activating the social use of minority languages" (Hizkuntza minoritarioen gizarte-erabilera aktibatzen). Campusean 80 pertsonek parte hartu dute. Bestalde, NPLDk Bruselan antolatutako "Education, Digital Technologies, Linguistic Models and Immigrats" mintegian euskarazko Wikipediari buruzko aurkezpena egin dugu. Azkenik, "The European Roadmap for Linguistic Diversity" (Hizkuntza-aniztasunerako Europako Ibilbide-orria) izeneko dokumentua lantzeko eta ebaluatzeko eratutako azpilantaldean ere parte hartzen jarraitu izan dugu.

*a) Se ha participado en todas las reuniones de la red europea NPLD Network to Promote Linguistic Diversity (Red para la Promoción de la Diversidad Lingüística), tanto en el Comité de Dirección (Steering Committee), como en la Asamblea General (General Assembly). Además, hemos organizado el segundo NPLD-Coppieters Campus 2019, en octubre, en San Sebastián, llamado "Activating the social use of minority languages" (activando el uso social de las lenguas minoritarias) al que asistieron 80 personas. Por otra parte, en el seminario organizado en Bruselas por la NPLD sobre "Education, Digital Technologies, Linguistic Models and Immigrats", hemos hecho una presentación sobre la Wikipedia en euskera. Finalmente, también se ha seguido formado parte del subgrupo de trabajo formado por la NPLD para trabajar y evaluar el documento "The European Roadmap for Linguistic Diversity" (Hoja de Ruta para la Diversidad Lingüística en Europa).*

b) 2019an ez da programarik gauzatu eremu urriko hizkuntzak dituzten gizarteetan eleaniztasuna sustatzeko (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin egindako akordio-markoan aurreikusitakoa).

*b) En 2019 no se han llevado a cabo programas de fomento del plurilingüismo en sociedades con lenguas minorizadas (previstos en el acuerdo marco con la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo).*

c) Ez da protokolo berririk adostu beste zenbait herrialdetako –bereziki Amerikako herrialdeetako– herri-aginteekin bertako hizkuntzen biziberritze lanetan laguntzeko.

*c) No se han acordado nuevos protocolos de colaboración en el ámbito de la revitalización de las lenguas locales con los poderes públicos de otros países –especialmente países de América–.*

d) Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren jarraipenari dagokionez, 2019an Adituen Batzordeak txostena eman du, eta HPSk horren gaineko balorazioa egin du. Horrez gain, aintzat hartuta EAEren kasuan gomendioak batez ere Ertzaintza eta Osakidetzari zuzenduta zeudela, txostena jakinarazi zaie bi administrazio horiei, besteak beste.

*d) En cuanto al seguimiento de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, en 2019 el Comité de Expertos ha comunicado su informe, y la VPL ha realizado su valoración al respecto. Además, teniendo en cuenta que en el caso de la CAE las recomendaciones iban dirigidas principalmente a la Ertzaintza y Osakidetza, se ha comunicado el informe a dichas administraciones, entre otras.*

2. Kataluniako Generalitatearekin, Illes Balearseko Gobernuarekin, Galiziako Xuntarekin, Nafarroako

*2. Se ha realizado el seguimiento de los acuerdos de colaboración firmados con la Generalitat de Catalunya,*

Gobernuarekin eta Valentziako komunitatearekin lankidetza-akordioen jarraipena egin da.

Hori horrela, hizkuntza politikaren arloko lankidetza-protokoloaren urteko jarraipen bilera egin da Bilbon 2019ko azaroaren 19an.

*Gobierno de Illes Balears, la Xunta de Galicia, el Gobierno de Navarra y la Comunidad de Valencia.*

*Así, se ha celebrado la reunión de seguimiento del protocolo de colaboración en materia de política lingüística el 19 de noviembre de 2019 en Bilbao.*